

Kontzeju

www.oiñoti.eus



Berba Oñoti



@BerbaOñoti



berba



Oñoti Irratib

Oñotiko Udaltzakeria | 2017ko urria | 276. zenbakia



DELIK

AZKEN URTEETAKO UZTARIK ONENA

Markak hautsi ditu aurtengo sagar uztak.





Oñati dana eta zana

» Erakusketa bat eta lau ibilaldi antolatu ditu udalak, Oñatiko herria nola eraldatu den ikusteko eta hiri-plangintzak duen garrantziaz ohartarazteko.

» Datorren urtean hasiko da udala Oñatiko Hiri Antolaketa Plan Orokorra idazten, eta herritarrek girotu egin nahi ditu, bertan parte har dezaten.

Datorren urtean Oñatiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) idazteari ekingo dio udalak, hain zuzen ere, herriko lurzoruei (hiri-lurrak nahiz landa-lurrak) emango zaien erabilera finkatzen eta arautzen duen dokumentua. Beste modu batera esanda, 20 edo 30 urte barru Oñati nolakoa izatea nahi dugun diseinatzeko prozesuari ekingo zaio.

Bistan da, bez, HAPOaren idazketa prozesua estrategikoa izango dela hurrengo urteetan, hor hartuko diren erabakiek herriaren alderdi guztietan eta herritarren eguneroko bizitzan eragingo dutelako, ez bakarrik hirigintza mailan.

Horregatik, udalak ahalegin



berezia egin nahi du herritarrek modu aktiboan parte har dezaten HAPOaren idazketan. “Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legeak ezartzen du

Udaleko eta Dunak taldeko kideak, girotze kanpainaren aurkezpenean

herritarrez osatutako Aholku Batzorde bat eratu behar dela Plan Orokorra idazteko, baina legeak ezartzen dituen mini-moetatik haratago, benetako partehartze prozesua jarri nahi dugu abian, gaiak daukan garrantzia kontuan hartuz” adierazi du Nerea Zubiak, udaleko Partaidetza saileko buruak.

GIROTZE FASEA

HAPOaren idazketa prozesua 2018an hasiko da, baina udalak girotze lana egin nahi du aurretik, herritarrek kontzientziazteko hirigintza planen eta hauen idazketan parte hartzearen garrantziaz. Eta helburu horrekin antolatu du ‘Oñati



Etorkizunean Oñati nolakoa izatea nahi dugun diseinatzeko prozesuari ekingo diogu datorren urtean

Gaiak duen garrantzia ikusita, benetako partehartze prozesua jarri nahi dugu abian, nahi duten herritarrek parte hart dezaten

NEREA ZUBIA

Partaidetza batzordeko burua

Dana-Zana' egitasmoa, Dunak Taldearen laguntzarekin.

Hala, urriaren 21ean hasi eta azaroaren 25erarte, erakusketa bat egongo da Kale Barrian (Txokolateixaren aldameneko pergola edo aterpean), eta bertan azalduko da plano eta argazkien bidez, nola joan den eraldatuz Oñatin azken 80

urteetan, nolako hirigintza planak idatzi ziren garai bakoitzean, eta nola eragin zuten herriaren bilakaeran. "Kalera aterako dugu erakusketa, ez ohiko leku batera, herritarrak probokatu edo zirikatze asmoz, eta ikustarazteko, aldi berean, nola alda daitekeen herriko gune bat, hirigintza planean hartzen diren erabakien arabera" azaldu du Zubiak.

Jarleku batzuk ere ipiniko dituzte erakusketa gunean, eta Kale Barriako erakuslehiotan argazki zaharrak jarriko dituzte, herritarrak erakusketara erakartzeko asmoz. Erakusketak dirauen bitartean, DUNAK taldeko langile bat egongo da bertan, herritarrei azalpenak eta argibideak ematen.

Erakusketa osatuz, gidatutako lau ibilaldi ere egingo dira, larunbatetan (ikusitako taula) Oñati nola aldatu den bertatik bertara ikusteko. Azkenengo larunbatean pintura tailerra antolatuko da, jendeak irudika dezan nola ikusten duen herria.

Gainera, DUNAK taldekoek ikus-entzunezko bat grabatuko dute giroz faseak dirauen bitartean, alderdi teknikoak ez ezik, herritarren ikuspuntuak jasoz Oñatik bizi izan duen garapenaren inguruan.

'OÑATI DANA-ZANA' / egitarua

ERAKUSKETA

URRIAK 21-AZAROAK 25

Kale Barrian (Txokolateixa ondoko pergolan), 'Oñati Dana-Zana' erakusketa egongo da. Plano eta argazki zaharren bidez, azken 80 urteetan herriak izan duen bilakaera ikusi ahal izango da.



IBILALDI GIDATUAK

URRIAK 28 ('IBAI EZKUTUA')

Natur eskolako kideen eskutik, herriaren azpitik pasatzen den errekan barrena ibiltzeko aukera egongo da. Oñatik bere garapenean ibaiarekin izan duen harremana ulertu nahi da (ibaia tokiz aldatu da, estali egin da...).



AZAROAK 4

('LANDA INGURUNEN ERALDAKETAK')

Herrigunearen inguruko landa auzoetan barrena ibilaldia egingo da, gure lurraldean eman diren erabilera aldaketa sakonak ikusteko.



AZAROAK 11

('PLAZA ETA KALEEN IZANA ETA IZAERA')

Herriko arkitektoek proposatutako gune publikoak bisitatuko dira, herriguneko plaza eta kaleak, eta bertako bizitza nola aldatu den aztertuko.

URRIAK 18

('LORATEGI ETA BARATZE EZKUTUAK')

Herrigunean dauden lorategi eta baratze pribatuak ikusteko aukera egongo da ibilaldi honetan.



IRUDIKAPENA ETA ITXIERA

AZAROAK 25

Erakusketa gunean, marrazki bat egiteko gonbitea luzatuko zaio jendeari, bakoitzak irudika dezan nola ikusten eta sentitzen duen Oñati.

Ibilaldi gidatuak goizeko 10:30etan hasiko dira, erakusketa gunetik abiatuta. Aurrez izena eman behar da, udaletxean edo odanazana@gmail.com helbidean

SEXU-AHOLKULARITZA ZERBITZUA herritar guztientzat eta dohainik

» Ostiral arratsaldetan eskainiko da zerbitzua Bidebarrieta kaleko 14an

Sexu-aholkularitza zerbitzua ez da berria Oñatin. Duela hiru urte jarri zuen abian udalak Gaztelekuan, gazte eta nerabeei sexualitatearen inguruko informazio fidagarria eta segurua eskaintzeko asmoz.

Baina, orain, urrats berri bat ematea erabaki du udalak. Iaz indarkeria matxistaren inguruan egindako diagnostikoak ondorio kezkarriak utzi zituen, batez ere homo-, lesbo- eta transfobiaren inguruan, eta, beraz, Berdintasun sailaren proposamena aintzat hartuz, sexu-aholkularitza zerbitzua herritar guztiei zabal-tzea erabaki du udalak.

Gaztelekuko zerbitzua orain arte bezala mantenduko da (ostiraletan 17:00-18:45), eta helduei zuzendutakoa berriz Bidebarrieta kaleko 14an (behe solairuan, ezkerreko bulegoan) eskainiko da, ostiraletan, 19:00etatik 20:30etara.

Gaztelekuan bezala, Bilboko 'DESIRAK - *Sexologia eta Generoa*' elkarteak eskainiko du zerbitzua. Bi sexologok (gizonezko eta emakumezko bana) emango dute aurrez aurreko zerbitzua, txandaka. Hala, sexualitateaz hitz egiteko erosoago sentitzen bagara gizonezko edo emakumezko batekin, hautatzeko aukera izango dugu

TXANDA HARTU BEHAR DA
Aurrez aurreko zerbitzua jaso nahi duten herritarrek txanda eskatu beharko dute emailaz (*txantxiku.sexuaholkularitza@gmail.com*) edo Facebook bidez (@*SexuAholkularitza Zerbitzua*). Ordu-tegiagatik, edo beste arrazoiren bategatik, bulegora joan ezin direnek, posta elektronikoko bidez ere egin ahal izango dituzte galderak eta kontsultak.

Zerbitzua dohainik da, eta,



Aurrerapauso handia da udal batek era honetako zerbitzu bat eskaintzea herritar guztientzat eta dohainik

Naiara eta Gaizka
DESIRAK

esan bezala, herritar guztiei zuzenduta dago. Bikote edo norbanakoentzat ez ezik, seme-alaben sexu-hezkuntzaren inguruan zalantzak eta kezakak dituzten gurasoentzako ere oso lagungarria izan daiteke zerbitzua, eta baita hezkuntza arloko profesionalentzat ere.

BELDURRIK GABE

Desirak taldeko sexologoek animatu egin nahi dituzte herritarrak zerbitzura hurbil daitezen. "Gaixo gaudenean medikura joaten garen moduan, edo sorbaldan min dugunean fisiora, sexualitatearen inguruko arazo edo zailtasunen bat dugunean sexologoarengana joan behar dugu, naturaltasunez. Beraz, beldurrik eta lotsak alde batera utzi, eta, edozein kezka edo zalantza dutela, guregana etortzeko gonbitea luzatzen diegu herritarrei.

Sexu-harremanetara edo



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENDAK, LUB FLUTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DI SEINATZAILLE ETA MONTATZAILER
SERRALDEAK, KAMARRAK eta ASKEZ GENGU
OLAKUA 12 B 4 esk. - ZUCBO ERABI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77



Bidebarrieta kaleko
14 zenbaskiko
bulego honetan
emango da
zerbitzua

genitaleara mugatu barik, sexualitateari buruzko ikuspegi anitza dute Desirak taldeko kideek. Gainera, genero gaietan ere adituak dira, eta, beraz, oso lagungarria gerta daiteke beraien aholkuak entzutea.

Ildo horretan, Desirak-eko kideek txalotu egiten dute Oñatiko udalak emandako

urratsa. "Oso leku gutxitan dago era honetako zerbitzu bat herritar guztiei zuzenduta eta dohainik. Aurrerapausu handia iruditzen zaigu. Sexualitateak gero eta garrantzi handiagoa du gure gizartean, eta inportantea da era honetako zerbitzu bat egotea".

**'DESIRAK
Sexologia eta
Generoa'
enpresako
Naiarak eta
Gaizkak emango
dute sexu-
aholkularitza
zerbitzua**

SEXU-AHOLKULARITZA ZERBITZUA

ZUZENeko ARRETA

Ostiraletan, 19:00-20:30
Bidebarrieta kaleko 14an.

EMAIL BIDEZ

Txanda hartzeko, edo
kontsultak egiteko, idatzi
helbide honetara:
[txantxiku.sexuaholkularitza@
gmail.com](mailto:txantxiku.sexuaholkularitza@gmail.com)

SARE SOZIALAK

-Facebook: Oñatiko Sexu
Aholkularitza
-Twitter: @Sexuaaholkuak

KONTSULTA GAIK

- Topaketa erotikoen inguruko zalantzak (gozamina, errutina eta desira-gabeziatik atera, orgasmoak sentitzen ikasi...).
- Seme-alaben sexu-hezkuntzaren inguruko aholkuak jaso.
- Seme-alaben jaiotzaren ostean esperientzia erotikoak berritu.
- Norberaren erakargarritasuna handitzeko eta bikote harreman bat hasteko gaitasuna sustatu.
- Identitate sexualak (zer naiz eta zer izan nahi dut).
- Desiraren orientazioa (homo-sexualitatea, lesbianismoa... Armairutik ateratzeko laguntza...)
- Menopausiak sortutako aldaketa eta gogo berriei erantzuna eman.
- Antisorgailuak eta emergentzia metodoak...
- Sexu transmisioiko infekzioak.
- Sare sozialen bitartez sortzen diren arazoak.
- Sexua eta drogak.
- Bikote zailtasunak: jeloskortasuna, xantaia emozionala...
- ...



Etxe-Aundik zerbitzurik onena eskaini nahi dizu:

- Ezkontzak
- Asteburuko menu bereziak
- Enpresen harrera ekitaldiak

Tel. 943 78 19 56 www.etxeaundi.com

Etxe-Aundi
Heldu - Jatorri 11





Errekor urtea

Markak hautsi ditu aurtengo sagar uztak. “Gogoratzen dudan urterik onena izan da” esan digu Zelaibarren baserriko Iñazio Zubiak. Normalean 5.500 kilo inguru ematen dituen sagastian, aurten 7.000 kilo sagar batu dituzte. Gehiena Zeraingo Oiharte sagardotegiari saltzen diote gaur egun, baina etxean ere egiten du oraindik sagardoa Iñaziok, eta baita sagardo-pattarra ere.

Oparoa ez ezik, aurreratua ere etorri da aurtengo sagar uzta, udaberri beroaren ondorioz. San Migel inguruan batu ohi da sagarra, normalean, baina aurten iraileko lehen astera aurreratu zuten bilketa Zelaibarren baserrian. Ikustekoa zegoen sagastia, goiko argazkian erakusten duen moduan,

sagarrez bete beteta.

Berak gogoratzen duen sagar urterik onena izan dela esan zigun Iñaziok. “7.000 kilo batu ditugu, eta normalean 5.000 eta 6.000 artean ibiltzen gara”. Errekor urtea izan omen da, beraz, aurtengoa, historikoa.

Bederatzi sagar mota ezberdineko (*Urtebi txiki, Txalaka,*

Manttoni, Errezil, Mozolua, Patzolua, Moko...) ia ehun sagarrondo ditu Iñaziok, eta bertan batutako guztia Zeraingo Oiharte sagardotegiari saltzen dio gaur egun. “Orain dela zortzi bat urterarte etxean bertan egiten genuen sagardoa, 20tik gora kupel (6.000 litro inguru), baina jada ez daukat

“ Iñazio Zubia: Aspaldiko sagar urterik onena izan da aurtengoa

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 732 733 712
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

“Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei iezaguzu”.

Modu ekologikoan
ekoizten dituzte
sagarrak
Zelaibarrenen



lehengo sasoirik, eta azken urteotan kanpora saltzen dugu ia dena”.

Bere garaian Asturiasetik ekarritako 20 bat sagarrondoko beste sail bat ere badu Iñaziok, eta handik jasotako uztarekin etxerako hiru kupel sagardo (900 bat litro) egiten du etxean bertan.

SAGAR EKOLOGIKOA

Zelaibarreneko sagastiak badu beste berezitasun bat, izan ere, modu ekologikoan ekoizten baitute. “Oiharte sagardotegiarekin tratua egin genuenean, pentsatu genuen interesgarria izango zela sagar ekologikoak produzitzea, berak ere zerbait desberdina (sagardo ekologiko) eskaini ahal izateko, eta halaxe hasi ginen” azaldu digu Iñaziok.

HAZI Fundazioak (Eusko Jaurlaritza) eta ENEEK elkarrekin (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua) zertifikatzen dituzte sagar ekologikoak, eta bertako teknikarien bisita ja-



Ohiturari eutsiz, etxeko txikienek argazkia atera zuten batutako sagarren gainean



Nagusi eta gazte, etxeko denek parte hartzen dute sagar bilketan

sotzen dute aldiro aldiro Zelai-
barrenen, sagastiaren egoera
eta eboluzioa aztertzeko. “Guk
ezin dugu produktu kimikorik
erabili, ez sagarrondoetan ezta
zelaian ere. Sagarrak Oihartera
eramaten ditugunean ere, han-
txe egoten da inspektorea, sa-
garrak ikusi eta akta jasotzen.
Jarraipen zorrotza egiten dute”
azaldu digu Iñaziok.

Sagarra ekologikoa bada,
zertxobait gehiago ordaintzen
dute kiloa, baina askoz gehiago
ez, kexu da Iñazio. “Azken ha-
mabi urteetan ez da sagarraren
prezioa igo. Hau ez da dirua-
gatik egiten; lan asko eta bene-
fizio gutxi. Afizioa behar da.
Dena den, gauza ederra da
norberak egindako sagardoa
etxean edukitzea, eta lekua
edukiz gero, animatuko nuke
jendea sagarrondoak jartzera;
nahikoa dira 40-50 zuhaitz.
Eta, gainera, beti izango duzu
saltzeko aukera”.

BERTAKO SAGARRENDAKO LAGUNTZAK

Sagardoaren kultura sustatu
eta sagardogileei nahiz sarga-
gileei bultzada eman nahian ari
dira erakundeak azkenaldian.
Helburu horrekin sortu berri
da, adibidez, ‘Euskal Sagardoa’
jatorri-deitura berria, Eusko
Label sagardoaren lekukoa
hartu duena.

Euskadiko 36 sagardogile
batu dira marka berriaren sor-
rerran, eta aurrean 1,3 milioi
litro (EAEko produkzio osoa-
ren %12) merkaturatu dituzte
(lepo edo kapsula gorria duten
botiletan saltzen da).



Kobrezko alanbiketa erabiltzen du
Iñaziok sagardoa destilatzen

Sagardoa eta sagar-pattarra

Garai batean 6.000 litro inguru sagardo egiten zuten
Zelaibarrenen. Gaur egun, Oiharte sagardotegiari
saltzen diote sagar uzta ia osoa, baina etxerako hiru
kupel ere (900 bat litro) egiten dute, goiko argazkian
ikusten den moduan.

Eta sagardoaz gain, sagar-likorea edo pattarra ere
egiten du Iñaziok, urtetik urtera
atzera geratutako sagardoarekin.

Ezkerreko argazkian ikusten den kobrezko alanbiketan destilatatu
egiten du sagardoa, eta *Sagardoz* izen generikoarekin ezagutzen
den pattar fina lortzen du.

Gero, zapora eta kolore ezberdinak ematen dizkio Iñaziok pattar
horri, frutu ezberdinak (masusta gorria, ahabia, gerezia...) haziak
(anisa...) edota belar mota ezberdinak erabiliz. Hogei bat sagardo-
pattar mota ezberdin egiten ditu Iñaziok. Esperimentatu zalea da,
eta urtean barietate berri bat probatzea gustatzen zaio.



Hogei bat likore mota
egiten dut Iñaziok

HAZIk egindako kalitate
kontrolak gairiditzez gain,
Euskal Sagardoaren betebeha-
rreko baldintza da %100 bert-
tako sagarrarekin egindako
izatea, eta, horregatik Foru Al-
dundia laguntzak ematen ari
da sagasti berriak landatzeko.

**Urte on batean,
12.000-15.000
litro inguru
sagardo egiten
dira Oñatin**

Euskal Herrian iaz 12,7 milioi
litro sagardo ekoitzi ziren, eta
erabilitako sagarren %45 zen
hemengoa, eta %55 kanpokoa.
Oñati mailan, gaur egun 30
bat etxetan egiten da sagardoa.
Sagar urte onetan 12.000-
15.000 litro sagardo egiten dira.

EGUR-LAN
AROSATEGIA
LIMABAR S.A.S.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barris 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

5 URTEKO HITZARMENA

Aloñako Mendiko Futbol saileko harrobiarekin

>> Atletismo sailarekin iaz sinaturiko akordioaren ostean, orain, **Coinbroker Aseguru Artekariak, bost urtetarako hitzarmena** lotu du Aloña Mendi Kirol Elkarteko **futbol saileko eskolarte mailako gaztetxoek babesle** gisa.

Apustu serioa dirudi hitzarmen honek ezta?

Bai, gauzak ondo doaz eta ahal dugun heinean laguntzeko prest gaude.

Jakina den bezala, enpresetan soldatak irabazteko lan egiten dugu. Hala ere, gurean beste lerro garrantzitsu bat ere zabaldu nahi izan dugu. Ahal dugun neurrian, baliabide gutxi dituzten taldeei laguntzen ere ahal egintzen gara. Badira gugana laguntza eske etorri eta momentuz, ezezkoa eman dieguna, hala ere asko estimatzen dugu gugan erakutsi duten konfidantza.

Zein da orain arteko lanaren balorazioa?

Dudarik gabe, oso positiboa. Denbora aurrera doa eta gauza garrantzitsuak lortzen ari garela uste dugu. Hala ere, oraindik egiten duguna ondo ulertzen ez duen jende dextente dagoela ikusirik, eta alor hori hobetzen jarraitu nahi dugu.

Besteekiko, ze abantaila eskaintzen dituzue?

Agente eksklusibo zein aseguru artekari bitartekariak gara eta bezeroak konpainiari ordaintzen dioenean, diru honen komisio bat eramaten dugu. Ezberdintasun nabarierik independentzian dago. Ase-

guru Artekariak (Corredores de Seguros) independentek gara eta edozein aseguru etxerekin lan egin dezakegu.

Beraz, ez zarete konparatzaile simple bat?

Konparatzaile batek konpainien prezioak besterik ez ditu alderatzen. Gu aseguru konpainia eta bezeroen arteko bitartekariak gara, aseguru inguruko aholkularitza espezializatu bat eskaintzen dugu (bizitza, heriotza, etxea, autoak, etab.), eta kontratatu ondorengo zerbitzua ere ematen dugu.

Azken puntu hau oso garrantzitsua da, gu garelako beraien kontaktu zuzena kasu guztietan (aseguru etxea edozein delarik), batez ere ezberhar/istripu baten aurrean. Gainera, legez, bezeroaren eskubideak defendatzera behartuta gaude.

Zergatik da zuen eskaintza interesgarria bezeroentzako?

Aholkularitza espezializatuan oinarritutako zerbitzu ezberdin bat jasotzeko aukera dutelako.

Hau lortzeko, merkatuko konpainiek dituzten baldintzak aztertzen ditugu eta hauek, dohaineko konparaketa azterketen bitartez aukera one-



Emaitza honen funtsa, etengabeko formakuntza, espezializatutako aholkularitza eta lan umila besterik ez da

nak azaltzen dizkiogu bezeroari. Aholkularitza honetan dago gure benetako balioa. Bezeroek, kontratatzen dutena ondo ulertu beharra daukate eta hori, oso garrantzitsua iruditzen zaigu.

Zein konpainiekin egiten duzue lan?

Merkatuko konpainia ezagun eta indartsuenekin egiten dugu lan (Reale, Allianz, Axa, Liberty, Plus Ultra-Catalana Occidente, Generali, Mapfre, Zurich, etab.). Badakigu prezio hobeak ematen dituzten konpainiak daudela, baina produktuaren kalitatean oinarri-

tzen da gure eskaintza eta merkatuko lehen konpainiekin bakarrik egiten dugu lan.

Hurrengo urteari begira, berrietasunik bai?


Gutxinaka teknologia berriei erantzuten duten berrikuntzak izango ditugu prest, nahi duenak eskuragarri izan ditzan. Aseguruak eguneratzeko momentua dela uste dugu eta teknologiaz baliatuz, onura asko lortu ditzake bezeroak.

Beste zerbait gehitu nahiko zenukete?

Eskerrak eman nahi dizkiegu gugan konfiantza eta laguntza osoa ematen ari direnei: Oñatiko Udalarai, Aloña Mendi elkarteari, zonaldeko enpresei eta batez ere, Oñatiko biztanleei.

Bestalde, gure aldetik ilusio berdinarekin jarraituko dugu lanean. Ez dago misterio handirik, emaitza honen funtsa, etengabeko formakuntza, espezializatutako aholkularitza eta lan umila besterik ez da.

Bola-jokoa ñatin

 Irailaren 17an jokatu zen herri mailako Bola-Joko txapelketa San Martinen, Kurtze Baltz elkarteak antolatuta, azken 50 urteetan bezalaxe. Danera 75 lagunek parte hartu zuten, 1992ko edizioan izan ziren 107 boletietatik urrun, baina nahikoa, hala ere, bizirik mantentzeko Oñatin tradizio handia izan duen jokoa. Araotzen eta Urrulan ere jokatzen da bolotan, auzoko jaietan.



Irailaren 17an jokatu zen aurten herriko bola-joko txapelketa

Munduan ezagutzen den jokorik zaharrenetakoa omen da bola-jokoa. Euskal Herrian ere Erdi Aroko dokumentuak daude bola-jokoaren inguruan (bolatokien alokairuak, joko-arauak, bola-jokoan aritzeko debekuak...).

Oñatiko udal artxibategian aurkitu ditugun erreferentzia zaharrenak XIX. mende hastapenekoak dira. Hala, 1928ko akta batean udalak Olaiturrin zeukan bola-lekua aipatzen da, bertan sutegi bat eraikitzeko herritar batek egiten duen eskaeraren harira.

Badirudi, XIX. gizaldian zehar Oñatiko udalak bere jabetzako lau bolatoki zituela (Olaiturrin, Altzibarren, San Martinen eta Kasablankan) eta errentan uzten zituela, enkantea egin ostean, Izar Salaberri artxibozainak eskuratu digun dokumentazioaren arabera. Adibidez, 1844ko akta batean esaten da Agustín de Galdos zela Altzibarreko bolatoki arduraduna, eta San Martingo bolalekua enkantera ateratzeko erabakiak irakur daitezke 1858, 1888 edota 1891ko akta ezberdinetan.

Udal jabetzako bolatokien artean, badirudi San Martingoa bakarrik gelditu zela XX. mende hasierarako. Besteak beste, Gregorio Iraola (1904), Celestino Arralde (1916), Prudencio Igartua (1917), Victoriano Madina (1920), Romualdo Zabaleta (1936), Andres Elorza (1942), José Irao-

caravanas  oñate



• GALARAGINTZA - CALDERERIA
Oladul zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oladul zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

la eta Domingo Biain (1946) izan ziren San Martingo bolalekuko arduradunak. Normalean lau urterako ematen zuen udalak bolalekuaren aprobetxamendua. 1920ko enkanteko oinarritzko prezioa 200 pezetatan ezarri zen.

Baina udal jabetzakoez gain, Oñatin baziren beste hainbat bolatoki ere: Olabarrietan, Araotzen, Urrexolan, Urribarrin, Zubillagan, San Pedron... Auzo gehienek zuten bolalekuren bat, behintzat. Azken batean, bola-jokoa zen aisialdirako aukera bakanenetakoa, pilota-rekin batera, eta jende asko batu ohi zen bolatokien inguruan larunbat eta igande arratsetan.

HERRIKO TXAPELKETA

Herriko bola-joko txapelketa noiztik jokatzeko den ez dakigu. Udal artxibategiko 1878ko akta batean irakur daiteke udalak baimena ematen diola José Valerdi jaunari, San Migel eta Errosarixo jaietan bolo partidak antolatzeke.

Gero, 1933ko akta batean ikus daiteke, Juan Arabaolazak dirulaguntza eskatzen diola udalari herriko jaietan bola-joko txapelketa antolatzeke San Martinen. 1945etik aurrerako aktetan irakur daiteke udalak urtero ematen duela garaikurra



Jesus Mari Arzuaga funtza - Oñatiko Udal Artxiboa


Bola-jokorako zaletasun handia egon da Oñatin. 1940 eta 50.eko hamarkadan ia egunero joaten zen jendea San Martingo bolakekura

eta diru-saria San Martingo txapelketarako. 1956an Eugenio Aranguren agertzen da antolatzaile bezala, eta 1961ean Jose Luis Ugarte.

Gero, Kurtze Baltz elkarteak sortu zenean, 1966an, berak hartu zuen herriko bola-joko txapelketa antolatzeke ardura, udalaren oniritziarekin, eta azken 50 urteetan jokatu izan da huts egin barik, herriko jaien atarian. Kurtze Baltzeko junta arduratzen da antolakuntzaz, eta Jose Luis Markinez izan da urte askotan bolatokia prestatzeke ardura.

LIGASKA ERAN

Gaur egun herriko txapelketa



Jesus Mari Arzuaga funtza - Oñatiko Udal Artxiboa



Jesus Mari Arzuaga funtza - Oñatiko Udal Artxiboa



Jesus Mari Arzuaga funtza - Oñatiko Udal Artxiboa

1967ko herriko bolo txapelketako irudiak. Urte horretatik aurrera Kurtze Baltz elkarteak antolatu du urtero herriko txapelketa.

bakarrak jokatzen da San Martinen, baina garai batean San Roke egunez ere jokatzen zen txapelketa, eta urte batzuetan baita Atzeko Kaleko jaietan ere.

Zenbait urtetan ligaska moduko bat ere jokatu zen Oñatin. Hiru saio egiten ziren. Lehenengoa Zumeltzegi dorreko bolalekuan, bigarrena Olabarrietan, eta hirugarrena San Martinen, eta hiruretako puntuak batuta erabakitzen zen txapelduna. 1948an jokatu omen zen lehen aldiz, eta Olabartako Bixente Ugartek irabazi omen zuen, eta hurrengo bi urtetan bere anaia Javierrek. Bospasei urtetan jokatu zen txapelketa hau, eta diru-sari polita egoten omen zen.

Bolari onak egon izan dira Oñatin, eta herrian bertan ez ezik, ingurukoetan ere (Aretxabaleta, Antzuola, Eskoriatza, Arrasate, Plaentxi, Legazpi...) lortu izan dituzte hainbat sari.

APUSTUAK

Gaur egun, 'subasta' jokatzen da (zaleek diru jokatzen dute bolarien alde) San Martingo herriko txapelketa hasi aurretik. Eta garai batean ere ohikoa izaten omen zen apustuak (trabesak) egitea bolarien eta ikusleen artean. Zubillagako auzotarren argitaratu berri duten 'Antxiñako Zubillagari begirada bat' liburuan irakur daiteke, auzoan zeuden hiru bolatokietako bat atxurtu egin zuela emakume batek, bertean dirua jokatzen zelako.

Badakigu, uztailaren 18ko paga osoa, eta baita txahal bat

“ ARLINDO ALMEIDA 'PORTU' / Bolari federatua

Estalitako bolatoki bat egokitu beharko luke udalak”

Oñatin, gaur egun, federatutako bolari bakarra da 'Portu'. Hemezortzi urterekin ezagutu zuen aurrenekoz bola-jokua, Arrasateko Garagartza auzoan, *Viseu* herritik (Portugal) iritsi berritan, eta gustatu egin zitzaion, bistan denez.

Gero, Oñatira etorri zenean, Urrintxoko bolalekuan zaletu zen, eta beste zenbait herritarrekin batera, talde federatua osatu zuten, herri arte mailan lehiatzeko. Urrintxoko bolatokia itxi zenean, Untzillako taldearekin jarraitu zuen jokatzen Portuk, eta azken urteotan Elgetako Bolo Elkartean ari da, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan parte hartzen. Hiru txirlotara jokatzen dira txapelketak, eta Gipuzkoako txapelketan lortutako 3. postua izan da bere emaitzarik onena. Hamalau elkarte federatu daude herrialdean.

Asko gustatzen zaio bolotan aritzea, aitortu digunez. Une atsegina igaro, lagunak egin eta, batez ere, arazoak ahazten laguntzen dio. Oñatin estalitako bolatoki bat egon beharko litzatekeela uste du. Oñatin bolotarako afizio handia eta bolari oso onak egon omen dira, eta merezi du arazuko bolatoki bat edukitzea, estalita.



ere, bolalekuan galduta etxera joandakoak ere badirela, baina ez dugu izenik emango.

Oñatin zaletasun handia egon izan da bolotarako, eta orain dela 50 edo 60 urte, uda garaian ia egunero joaten ziren gazteak San Martinera bolotan jokatu eta, tarteka, frittangaxoren bat egitera. Gero, kotxeen etorre-

Araotzeko jaietako txapelketako irudia goian.

Eskuman, Mikel Deunaren txapelketako eta Araotzeko irabazleak

rarekin, kanpora irteteko ohi-tura nagusituz joan zen, eta horrek ekarri zuen bola-jokoaren gainbehera.

Gaur egun, San Martinen jokatzen den herriko txapelketaz gain, Araotzeko eta Urruxulako jaietan ere jokatzen dute bolotan, eta baita Lizargarate egunean ere. ■








Ramon Irizar, 2
Tel. 943 08 81 84
 Candeluka



Amaia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera libentziak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiIgartua@gmail.com • Oñati

Ezkabako gartzelaren historia beltza

» 700 bat preso hil ziren bertan 1936-1945 artean. » Bertako memoria berreskuratzeko lanean ari den Koldo Plak hitzaldia emango du Oñatin urriaren 20an.

‘La memoria en una botella’ izenburupean hitzaldia emango du Koldo Pla ikerlariak Oñatin, urriaren 20an (kultur etxea, 19:00).

Iruñeako Ezkaba mendiko San Cristobal gotorlekuan egon zen espetxe frankistaren historia beltza argitu eta memoria berreskuratzeko lanean diharduen Txinparta elkarteak kidea da Pla.

Alfontso XII.aren garaian, Hirugarren Karlistaldiaren amaieran (1878-1919 artean) eraiki zuten San Cristobal gotorlekua Ezkaba mendia tontorrean, Iruñea kontrolatzeko asmoz, baina ez zuten sekula erabilera militarrik izan, eta, gerora, espetxe bezala erabilia izan zen bi alditan: 1934ko urriko iraultzaren ondoren (800 bat preso egon ziren bertan, horietako asko eibartarrak), eta 1936ko altxamendu militarren ondoren, espetxe frankista bezala.

Guztira, 7.000 inguru preso egon ziren San Cristobalen, eta horietatik 700 bat hil ziren (asko tuberkulosiak jota, beste asko erailak, “aske” utzi ostean, eta beste zenbait fusilatuta), eta Ezkaba mendiko magaletan lurperatu zituzten. Hildako 200 bat preso ez dira erregistroan



Ezkaba mendian aurkitutako hobietako bat

agertzen.

EZKABAKO IHESA ETA ONDORENGO ERREPRESIOA

1938ko maiatzean 795 presok ihes egin zuten San Cristobal gotorlekutik, baina 3k bakarrik lortu zuten muga zeharkatzea; 585 berriro harrapatuak izan ziren, eta 225 hil zituzten. Gero, 14 preso fusilatu zituzten, ihesaren erantzule izateagatik.

San Cristobalen hildako azken 131 presoak Ezkaba mendiko hilerrian lurperatu zituzten, belaunetan botila bat zutela, hildakoaren datuekin (paperak hondatuta zeuden gorpuak atera zituztenean), eta horregatik bilakatu da botila Ezkaban hildako presoen ikur.

Zorionez, Txinparta kultur elkarteak, Aranzadi elkatea eta beste hainbat egiten ari diren lanari esker, Ezkaba mendiko hobietan lurperatutako gorpu asko berreskuratu eta identifikatzen ari dira. Han jazotakoa argitu eta memoria berreskuratzeko asmoz, zenbait liburu eta DVD argitaratu dituzte, eta erakusketa bat (‘Lur azpitik lur azalera’) ere prestatu dute. Erakusketa urtarilean iritsiko da Oñatira, baina, aurretik, historia ezagutzeko aukera izango dugu Koldo Plaren eskutik.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaiotze San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI





Elkartasuna banatzen jarritzen du Hermansoloñak lokal berrian

» Rosa Agirregabiriak hartuko du Jose Antonio Urteagaren erreleboa Hermansoloña taldearen gestioan

Leku-aldatze lanak amaituta, udalak Kale Zarreko 52an utzitako egoitza berrian ari da jada lanean Hermansoloña (*Hermanamientos Solidarios de Oñati*) taldea.

Lokal berriak (garai bateko Castillotarren jolas-aretoa) 133 m² ditu (orain artekoak baino 80m² gutxiago), baina gustura daude bertan, Jose Antonio Urteagak azaldu digun moduan. “Argentinara kontainerrak bidaltzen genituenean, horrek leku handia eskatzen zuen, baina gaur egun dugun dinamikarako nahikoa da lokal hau. Komuna eta bulego txiki bat ere baditu, eta gustura gaude”.

2001. urtean hasi zen lanean



Hermansoloña taldea (2010ean hartu zuen izen ofiziala, GKE/ONG bihurtuta) eta urte guzti hauetan lan handia egin du Oñatirekin anaitutako Jose C. Paz (Argentina) herriko Euskal Etxekin elkarlanean. Hamabost urtetan zehar 35 laguntza kontainer (erropak, jostailuak, eskola materiala,

botikak...), bidali dituzte hara, behartsuen artean banatzeko, eta hainbat elkartasun proiektu (jangelak, tailerrak, etxebizitzak, formazio proiektuak...) jarri dituzte martxan.

CARITASEkin LANEAN

Iaz Argentinara kontainerrak bidaltzeari uztea erabaki zuen Hermansoloñak, aduanan jartzen zizkieten traba eta oztopoekin gogaituta. Eta, gaur egun, batez ere Catitasekin egiten du lan, Urteagak azaldu digunez. “Gure lehentasuna da Oñatiko Caritasen beharrei erantzutea. Hain beharrezkoa ez den materiala Gipuzkoako Caritasen Arrasaten daukan egoitzara bidaltzen dugu (bi hilabetero hiru furgonetakada material), eta Oñatiko beste elkarte batzuei (Saharatarrak, ACESMA, dominikarrak...) ere ematen diegu materiala”.

Horrez gain, Oñatin bizi diren saharatar komunitatearekin elkarlanean, urtean hiru kargamentu (eskola materiala, botikak, jostailuak...) bidaltzen

LOKAL BERRIA

Kale Zaharreko 52an dago Hermansoloña taldearen lokal berria. Asteleheneetik ostegunera (18:30-19:30) jasotzen dute materiala bertan

dituzte Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara, eta, bestalde, Hotz-Oñati taldearekin (lokal berean dauka egoitza) eta Nepalen aldeko elkartasun taldearekin ere kolaboratzen du Hermansoloñak.

BERRERABILGARRI DEN GUZTIA

Berrerabiltzeko moduan dagoen edozein gauza (oinetakoak, erropak, jostailuak, eskolarako materiala, mantak, altzariak, ontziteria...) batzen du Hermansoloñak. “Berrerabiltzeko moduan dagoen ezer ez da bota behar basurara” dio Urteagak; “hona ekarri eta guk emango diogu irteeraren bat”.

Zerbait eraman nahi izanez gero, Hermansoloñaren lokala astelehenetik ostegunera egoten da zabalik, 18:30etatik 19:30etara. “Hala ere, norbaitek nahiago badu beste orduren batean ekarri, gurekin harremanetan jarri eta ez dago inola-



AURPEGI BERRIAK

Ander Puerto gaztea da Hermansoloña taldean lanean ari den aurpegi berrietako bat

EDUKIONTZI ZURIA

Lizaur eta Kale zaharra arteko bidegurutzean dagoen edukiontzi zurian ere utz daiteke materiala

ko arazorik. Oso flexibleak gara” azaldu digu Urteagak.

Bestalde, lokalaren ondoan, Kale Zaharra eta Lizaur kaleen

arteko bidegurutzean, edukiontzi zuri bat ere badauka Hermansoloñak, eta han ere utz daiteke materiala.

AURPEGI BERRIAK

Lokala ez ezik, aurpegi berriak ere ikusi ditugu Hermansoloña taldean. Urteaga aspaldian ari zen errelebo eske, eta, zorionez, iritsi da. Rosa Agirregabiria arduratuko da aurrerantzean taldearen gestioaz, Urteagaren laguntzarekin.

Gainerakoan, eguneroko lanean 8 bat laguneko taldea ari da, eta beharra dagoenerako beste 20ko laguntzaile taldea ere badute. Beraz, osasuntsu dago taldea lanean jarraitzeko, Oñati eta inguruan beharra duen jendeari laguntzen, eta Argentinan martxan dituzten proiektuei laguntzen, Oñatiko herriak, udalak, eta Ulma, Irizar edo Oroona bezalako kooperatibetatik jasotzen duten laguntzarekin.

ZATOZ INFORMATZERA!!

Arantzazuko Arria

Adosatuak Kurtzekua

San Martin

Kurtzekua

italde

www.italde.com

Ramon Irizar kalea
T. 943 78 27 07

Oñatiko demografia, etxebizitza eta jarduera komertziala aztergai

Gaur egungo errealitatea eta etorkizuneko beharren azterketa egin du udalak, Gislan enpresaren bitartez

Herriko etxebizitzaren egungo errealitatea eta etorkizuneko beharren inguruko azterlana egin du Gislan (*Geographic Applications S.L.*) enpresak udalaren enkarguz. Hurrengo urteetan izango diren premiak aurreikusi eta udalak abian jar ditzakeen ekintza planetarako oinarri objektibo bat edukitzeko asmoz burutu da azterlana.

Hiru atal nagusi jorratu dira azterlanean: soziodemografia, etxebizitza parkea, eta herrigune historikoko etxe hutsak eta jarduera komertziala, gaur egungo diagnostikotik abiatu eta etorkizunerako prospektiba egin.

Aipatzekoa da, gainera, herria bere osotasunean hartuta egin dela azterketa, eta, beraz, landa-auzoetako errealitate bereziak ezagutzeko aukera ere ematen duela.

DATU DEMOGRAFIKOAK

Azterketa soziodemografikoa-ri dagokionez, Oñatik dinami-ka demografiko propioa eta ugalkortasunerako gaitasun indartsua duela ondorioztatu dute teknikoek. Ildo horretan, adierazgarria da udalerrian bertan jaiotako biztanleriaren proportzioa (%66,1) handia dela.



Migrazio fluxuei dagokienez, azken bost urteotan Oñatik, batzaz beste, urtero 50 herritar bereganatu ditu (0-44 urteko adin tartean) eta, apalki bada ere, hori udalerriko egitura demografikoa berritzeko ekarpen txiki bat da, Gislan-eko adituen ustez.

Hurrengo urteetan zehar jaiotzak gutxitzea aurreikusten da, 1990eko hamarkadako jaiotze tasa apalaren ondorioz ugalkortasun adinean dauden 15-29 urte arteko gazte gutxiago dagoelako.

Beraz, biztanleria egonkor mantendu edo pittin bat behera egingo duela aurreikusten da, nahiz eta migrazio fluxuak bereganatzeko ahalmenaren arabera hori alda daitekeen.

Irati Etxeberria, udaleko Hirigintza batzordeko burua, eta Gislan enpresako ordzkaririk

Ur kontsumoak aztertuta, balizko 642 etxebizitza huts daudela ondorioztatu du azterlanak

Alokatutako etxebizitzak %5 baino ez dira Oñatin



Bestalde, Oñatiko egungo zahartze tasa (%27) Gipuzkoakoa baino zertxobait handiagoa bada ere, datorren hamarkadan zahartze prozesuari Oñatik hobeto eutsiko diola aurreikusten da, 1960-70eko hamarkadako migrazio-fluxua apalagoa izan zelako gurean, herrialdearekin alderatuz.

Ildo horretan, 2027. urterako Oñatin adineko pertsonak 3.000 inguru izatea espero daiteke (horietatik 1550 inguru 75 urtetik gorakoak), interbentzio publiko baten beharra izango dutenak.

ETXEBIZITZA PARKEA

Egungo etxebizitza parkearen katalogo zehatza ere osatu du Gislan-ek auzoz auzo, etxeen antzintasuna eta azalera zehaztuz, besteak beste.

Ildo horretan, Gislanek uste du gaur egun Oñatin 642 bat etxebizitza egon daitezkeela hutsik. Udalak gaur egun 344 etxeri aplikatzen die OHZ/IBI zergaren %100eko errenergua,

Herrigune historikoan hutsik dauden etxebizitzien kokalekua



inor erroldatu gabeko etxeak direlako, baina Gislane ur kontsumoaren arabera azterketa egin du, eta ondorioztatu du herriko etxebizitzien %12 hutsik egon daitekeela. Etxe horien ezaugarriak eta kokapena ere zehazten dira lanean.

Etxebizitzekin lotuta, Oñatin alokairuak duen presentzia txikia ere agerian utzi du azterlanak. Azken datuen arabera, alokairuan bizi diren bizikidetzak %5era ere ez dira iristen (Gipuzkoa mailan %10 bizi dira), eta azken urteetan are gehiago murriztu da.

Etxebiden izena emanda dauden oñatiarren kopuruak ere gainbehera handia izan du; 2007an mila biztanleko 64 eskabide zeuden, eta 2015ean 11 (eskualdean edo herrialdean baino askoz eskabide gutxiago). 2006-2013 epealdian 984 etxebizitza salerosi ziren Oñatin (gehienak berriak) eta, antza denez, etxebizitza beharra hobeto gogobete da Oñati mailan.

Azken datuen arabera (2011),

herriko bizikidetzak-unitateen %28,3a hipoteka ordaintzen arida da.

Goian esan dugun moduan, hurrengo hamarkadan herriko biztanleria zertxobai apaldu egingo dela aurreikusten da, baina, bizikidetzak-unitateak txikitzen doazela kontuan hartuz (gero eta ugariagoak dira guraso bakarreko edo pertsona bakarreko unitateak), 2027. urtean Oñatin 4.700 bat bizikidetzak unitate (gaur egun baino 100 gehiago) egotea espero daiteke (kopuru hori handitu liteke etorkinen fluxua handituz gero). Edozein modutan, hutsik dauden balizko etxebizitzien optimizazioa nahikoa litzateke behar horri erantzuteko.


HERRIGUNE HISTORIKOA

Azterlanaren hirugarren atala herrigune historikoan zentratu da, etxebizitza hutsetan eta jarduera komertzialean fokua jarritz. Hala, herrigune historikoko etxebizitzien %19,7 hutsik egon daitezkeela jasotzen da, eta hauen kokapena eta tipologia (adina, azalera...) ere zehazten dira.


Bestalde, herrian dauden komertzio txikien %56,6 eta ostalaritza establezimenduen %45,8 herrigune historikoan kokatzen dira, baina denda txikiei dagokienez, 2008tik hona gutxituz doazela ohartarazten du Gislane. Bestalde, ostalaritza establezimenduak metatzen diren guneetan etxe hutsen kopurua handiagoa dela jasotzen du azterlanak, eta ildo horretan oreka lortzea ezinbestekoa dela, auzoaren bizigarritasun egoki baterako.

Mardula da Gislane egin duen azterlana, eta oso baliagarria izan daiteke udalak etorkizunean abian jar ditzakeen ekintza planetarako (etxebizitza eta lokal komertzialen berritzea, alokairuaren sustapena, zerbitzuen planifikazioa...).

AZTERLANEKO ZENBAIT DATU




Biztanleriaren bilakaera eta prospektiba 2000/2027



Biztanleriaren adin egitura, auzoz auzo (2017)



Balizko etxe hutsak (%) herrigune historikoan



Biztanleriaren bilakaera jatorriaren arabera

'SENDIAN' PROGRAMA



Nagusien zaintza lanetan aritzen diren senideei zuzendutako ikastaroa antolatu du udalak

Menpekotasun egoeran dagoen pertsona batekin bizi diren familiei laguntzeko helburua duen 'Sendian' Foru Aldundiaren programaren bidez, zaintzaileei zuzendutako ikastaroa antolatu du Oñatiko udaleko Gizarte Zerbitzuen departamentuak.

Sei saio izango ditu ikastaroak: urriaren 18 eta 24an, eta azaroaren 2, 7, 22 eta 24an. Bi orduko (15:00-17:00) saioak izango dira, Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18). Interesatuak urriaren 16a baino lehen eman behar dute izena Gizarte Zerbitzuetan (Bidebarrieta 12 / 943037700).

Hauxe izango da egitaraua:

- 1.SAIOA:** Norbere burua zaintzeko teknikak, komunikazio eta erlajazio ezagutzak eta beste zenbait nozio praktikoa. Emozioak eta buru-osasuna: autoestimua.
- 2.SAIOA:** Zaindutako pertsonen gaitasunei dagozkien aspektu legal eta etikoak. Tutela, kuratela eta alde-zurretiko borondatea. Testamentu eta oinordetzak.
- 3.SAIOA:** Baliabide sozialak. Osasun baliabideak.
- 4.SAIOA:** Laguntza produktuak eta ingurunea egokitzea.
- 5.SAIOA:** Genero ikuspegia eraikitzen, eta zaintzaren aurrean erantzukizunak hartzerakoan bere eragina aztertzea. Nola banatzen dira zaintza lanak sexuaren arabera? Rolak eta genero estereotipoak. Zaintzaren aurrean emakumearen eta gizonaren egungo egoera. Zaintza eskubide bezala.
- 6.SAIOA:** Osasun eta erizaintzaren inguruko aspektuak.

BERTAKOEN GUNEETAN APARKATZEKO TXARTELAK ESKATZEKO DEIALDIA

Urriaren 31ra arteko epea dago eskaera berriak egin edo lehengoak ezeztatzeko

Araututako aparkaleku sistemen arabera, Aita Mortara kalean eta Bidebarrieta kaleko bi guneetan inguruko bizilagunek bakarrik aparkatu ahal dute, horretarako baimena ematen duen txartela udal-txean eskatu ondoren.

Eta, hain zuzen, udalak eskaera berriak egiteko, edo lehengoak ezeztatzeko epea zabaldu du. Udaletxeko iragarki taulan eta web orrian (www.onati.eus) jarri du 2017an Eresidenteen OTA txartela duten herritarren zerrenda, eta urriaren 31ra arteko epea zabaldu du eskaera berriak egiteko, edo lehengoak ezeztatzeko. Aurten txartela duten herritarrei automatikoki berrituko zaie, kontraktorik esaten ez badute.

Gogoratu: **Aita Mortara**ko gunean Kale Zaharra (1-29 eta 2-48), San Anton, Aita Madina, Aita Mortara, Foruen Enparantza, Portu kalea, Unibertsitate etorbidea, Maiatzaren 1a, Bakardadeko Ama eta Zumeltzegi kaleko bizilagunek aparkatu ahal dute. Eta **Bidebarrietako** gunean, aldiz, kale horretako eta Zubibarri, Motxon, Atzeko Kale, Kale Barria, Errementari eta Ramon Irizar-eko bizilagunek.

Bai ibilgailua eta baita jabea ere kale horietan erregistratuta egon behar dira bertakoen aparkatzeko txartela eskuratu ahal izateko.



GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Coworking Gunea

erabiltzeko izen ematea zabalik

Ekintzaile, autonomo, profesional eta mikroenpresei zuzendutako gunea da. Sinergiak sustatu eta proiektuak partekatzea da helburua

Azaroan zabalduko ditu ateak Olakuako dorreko lehen solairuan udala egokitzen ari den Cowork Gunea, baina, dagoeneko zabalik dago bertan aritzeko izen-emate epea.

ZER DA COWORK GUNEA?

Gune hau, bereziki, Oñatiko ekintzaile, autonomo, profesional eta mikroenpresei zuzenduta dago, eta bere helburua da lanerako eta lankidetzarako espazio partekatu bat eskaintzea; sinergiak sortu, elkarrekin ikasi, harremanak sustatu eta proiektuak eta ezagutzak partekatzeko.

Sei plaza edo lan-leku egongo dira bertan, eta erabiltzaileek ordutegi partekatua edo ordutegi osoa aukeratu ahal izango dute:

- **Ordutegi osoa:** astelehenetik ostiralera, 08:00-20:00
- **Ordutegi partekatua:** astelehenetik ostiralera, 08:00-14:00 edo 14:00-20:00.

Horrela, erabiltzaileek aukeratzen dituzten ordutegi arabera, coworking gunea 12 pertsona hartzera ere iris liteke.

Azpiegiturari dagokienez, erabiltzaile bakoitzak bere mahaia, aulkia eta gauza pertsonalak gordetzeko armairua izango ditu, eta horrez



Olakuako dorrean egongo da coworking gunea

gain, bertako ekipamendua, zerbitzuak eta espazio komunak erabiltzeko aukera izango du (sare konexioa, bilera gela, topaketa gunea...)

IZENA EMATEA ETA INFORMAZIOA

Coworking generari buruzko informazio gehiago eskatzeko, edo bertan kokatzeko eskaera egiteko, Oñatiko udaleko Sozioekonomia sailera jo behar da (943 003 198 / enpresa@onati.eus).

Azpiegitura berri honek gaur egun udalak herriko ekintzaile eta enpresa txikiei eskaintzen dien beste zerbitzu eta laguntza batzuk osatuko ditu, hala nola: Enpresak sortzeko informazio eta aholkularitza zerbitzua; Enpresa berriak sustatzeko laguntzak; Langabetuak kontratatzeko laguntzak; Olaburu zentroan industria nahiz zerbitzu arloko enpresa ekimenetarako moduluen behin behineko lagapena.

Oñatiko irabazi asmorik gabeko elkarte eta kolektiboek zuzendutako ikastaro praktikoak

Udazken honetarako Oñatiko udalak doako 2 ikastaro antolatu ditu herriko irabazi asmorik gabeko elkarte eta kolektiboentzat:

• **'Proiektuak garatzeko eta plazaratzeko gaitasunak lantzen'** 8 orduko ikastaroa bi lan saiotan banatuta. (Urriak 27 eta 28an)

• **'Herramientas de productividad y trabajo en red'** 9 orduko iraupena. 3 saiotan. (Azaroak 21, 23 eta 28)

Ikastaroek alde teorikoa eta praktikoa izango dute, baina batez ere elkarte

eguneroko kezak eta zalantzak argitzera bideratutakoak izango dira. Lehen saioaren oinarriko hizkuntza euskara izango da, bigarrenarena, gaztelera..

Udalaren web orrian eta gainontzeko komunikabideetan publikatuko dira zehaztasun gehiago datozen egunetan.

Aurre inskripzioa egiteko bi aukera egongo dira, urriaren 9tik aurrera:

• **Presentziala** edo aurrez-aurre udaltxeko harreran, dagokion eskaera orria erabiliz.

• Emaillez, partaidetza@onati.eus

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



KLAU

*Oinetakoak,
Moda eta
Osagarriak*

Atzeko Kale 6 · Tel.: 943 04 50 66 · www.klaumoda.com

Ikasketak homologatzen laguntzeko zerbitzua eskainiko du Udalak etorkinentzat

Udaleko Berdintasun sailaren ekimenez, atzerriko ikasketak homologatu eta baliozkotzeko tramiteetan laguntzeko zerbitzua eskainiko du udalak urritik abendura.

Etorkinen eskubideen eta gizarte inklusibo baten alde lan egiten duten *Bidez Bide* elkarteak emango du zerbitzua, hilabeteko hirugarren asteartetan (15:00-18:00), udaletxeko behe-solairuan. Aurrez hitzordua eskatu behar da, bidezvide@hotmail.com helbidean.

Bidez Bide elkarteak Katia Reinberg-ek azaldu digunez, oso inportantea da etorkinentzat, gutxienez, Batxilergoko ikasketak homologatzea, ate eta aukera asko zabaltzen dituelako (lan poltsak, formazio ikastaroak...). Ikasketen homologazio prozesuan laguntzeaz gain (beharrezkoa den kasuetan tramiteak egitera ere laguntzen dute erakundeetara), hemen egin ditzaketen ikasketa ibilbideen inguruko informazioa ere eskainiko du Bidez Bidek.



Bidez Bide elkarteak
Katia Reinberg

Hileko hirugarren asteartetan (15:00-18:00) eskainiko da zerbitzua udaletxeko behe solairuan. Hitzordua eskatzeko: bidezvide@hotmail.com

Aldundiak garraio publikoan egindako murrizketek eragin zuzena izango dute Oñatin

Lurraldebusak, Gipuzkoako Aldundiaren autobus zerbitzuak, Debagoieneko lineak berrantolatu ditu, eta aldaketa horiek eragin zuzena dute oñatiarrongan. Hala, Oñatitik Bergararako (DG08) linea kendu du, "inefizientea" delako, eta Oñatik Aretxabaleta eta Eskoriatzarako lotura zuzena galdu du. "Gainera" azaldu du Irati Etxeberria zinegotziak, "Aldundiaren asmoa zen Oñatitik pasako litzatekeen linea urbano bakarra (DG04 Arrasate-Oñati-Zumarraga) ordubeteko maiztasuna izatea, eta udalaren lehentasuna izan da DG04 linea berriaren maiztasuna orduerdikoa izatea, Oñatitik Gasteizera edo Donostiara doazen pertsonak, eta hemendik aurrera, Bergara, Aretxabaleta edo Eskoriatzara doazenek, aldaketak egin ahal izateko autobus zerbitzu minimo bat izan dezaten". Azkenean aldundiak onartu egin du Oñatiko udalaren eskaria eta DG04 lineak orduerdiko maiztasuna izango du.

Hala ere, Oñatiko udalaren ustez zerbitzu minimo hau ez da inolaz ere nahikoa, garraio publikoa benetan sustatu nahi bada. "Oñatiko herritarrek zerbitzu duina izateko eskubidea dute, eskualdeko herrietara transbordonik egin gabe joan ahal izateko, eta berdin bailaratik Oñatira lanera edo ikastera etorri ahal izateko ere" adierazi du Etxeberriak. Gainera, gogoratu behar da, Oñatin badagoela kolektibo bat Bergarako Gureak lantegira joaten dena, eta euren aniztasun funtzionala medio, ez direnak gai San Prudentzian transbordo egiteko. Etxeberriak adierazi du Udalak egoera hau konpontzeko baliabideak jarriko dituela, Aldunditik soluzio bat eskaini bitartean.

Ikasturte berria abian da Arrikruz-Oñatiko koban

Hezkuntza eskaintza zabala du aurten ere

2017-2018 ikasturtea abian da Arrikruzeko koban, eta urtero bezala, adin ezberdineko (4-18 urte) ikasleei egokitutako tailer eta ekintza ugari eskainiko dituzte bertan. Hala, kobazuloa bisitatzearaz gain, geologia, biologia edota historia ezagutzeko aukera izaten dute Euskal Herriko txoko ezberdinetatik bertaraten diren ikasleek (4.000 inguru urtean). Oñatiko ikastetxeentzat dohainik izaten dira herriko natur ondarea ezagutzera zuzendutako jarduerak.

Iñaki Beristain hil da



Oinaze handia eragin du Arantzazuko kobentuan eta Arantzazu modu batera edo bestera maite duten herritarren artean Iñaki Beristainen heriotzak. Errezilen jaioa, 50 urte egin ditu Beristainek Arantzazun eta bertako ikurreta-ko bat zen. Fede sakoneko eta euskal kulturarekiko konprometitutako fraidea, 70 urterekin hil da minbizi baten ondorioz.

ARRIZABALAGA
Aroztegia

PAKITA
Altzariak

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIAN ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egonetzako labore-erakundeak

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

Duintasuna, Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen plataformak Oñatin egin zuen ikasturte honetako aurreneko asanblada irailaren 26an. Zuzendaritza taldea berriro ostean, Adineko Pertsonen Kontseilura eta bestelako foro-erara eramango dituzten aldarrikapenen errepasoa egin zuten.

Pentsioak dira, zalantzarik gabe, kezka iturri nagusietako bat. Hala, Duintasunak gogorazi du, azken urteetan izan diren izozte eta igoera apalen ondoren, pentsiodunek galera nabarmena izan dutela erosahalmenean. Ildo horretan, azaldu dute, Gipuzkoan, gaur egun, 4.096 pentsiodunek (2.746 emakumezkoak) DBE/RGI-tik datorren konplementoa jasotzen dutela "mixeriazko pentsioak" osatzeko (Erkidego autonomo mailan ia 16.000 dira DBE-a eskatzen dutenak, horietatik 10.737 emakumeak).

Gaur egun, Euskal Herrian ia 300.000 pertsona omen dira 600 eurotik beherako pentsioa dutenak, eta Gipuzkoa mailan emakumezkoen pentsioa, batzaz beste, gizonezkoena baino %32,9 txikiagoa da, Duintasunak salatu duenez.

Soldata duinak, kotizazioak



1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatu du Duintasunak

Oñatin batu zen Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen Plataforma

jasotzea, enpresariei bonifikazioak kentzea, lan-kontratoen fraudeari aurre egitea, eta pentsio pribatuei ematen zaien laguntza kentzea dira, besteak beste, Duintasunak proposatzen dituen neurriak, pentsioen arazoari aurre egiteko.

GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte zerbitzuen arloari ere arreta berezia eskaintzen dio Duintasuna elkarteak. Ildo horretan, kezka handiz ikusten



Gipuzkoan 4.096 pentsiodunek DBE/RGIa jasotzen dute, mixeriazko pentsioak osatzeko

dute Etxez-Etxeko Laguntza zerbitzura aldundiak zuzentzen zuen diru-atalean iragarri den murrizketa (kostuaren %80tik %50era). Ildo berean, kezkaz ikusten dute erresidentzietako itxaron zerrenda %23,6 hazi dela.

Horregatik, Duintasunak dei egiten die jubilatuta eta alargunei indarrak batzera. "Guk geuk defendatu behar ditugu gure eskubideak, erabakiak hartzen diren guneetan parte hartuz".

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6

Tlf.: 943 78 16 48

email: maitane@gualbiasores.com

www.gualbiasores.com

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Kontzejupetik

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Patriarkatu sozialista

Irati Bollar

50 urte beteko dira urriaren 9an Ernesto Guevara, “Che”, Bolivia urrunean erail zutenetik. XX. mendeko klaseen arteko borrokaren eta “sozia-lismoaren” sinbolo bihurtu zen. Bestalde, azaroaren 7an 100 urte beteko dira Errusiako Iraultzatik, Che bizi izango zen testuingurua guztiz baldintzatu zuen “ekatonbe” sozio-politiko. Interes ekonomiko eta ondorioz politiko ezberdinen arteko talka ez zen makala izan aurreko mendean, “sozialista” bezala ezagutzen ziren herrialdeak Txinako iraultzatik (1949) aurrera lur azaleraren heren bat okupatzera iritsi baitziren. Berdintasun ekonomikoa, herri-asanbladetan oinarritutako sistema politikoa, klaseen amaiera eta mundu mailako bakea helburu zuten mugimenduak frakasatu egin zuten, ordea.

Bestalde, Estatu edo/eta militante “sozialistek”, berez, emakumeen zapalkuntzaren amaiera iragarri bazuten, praktikan, emakumeak familia tradizionalen zuen rola betearazteko baloreen alde agertu ziren. Historian zehar ez dira gutxi izan emakumea zapalduta mantentzeko zabaldu diren ideiak: Adanen saihetsetik sortu zela, irakurtzeko gai ez zela, berezkoa zuela ama eta emazte sumiso izaera, apolitikoa zela, eta orain berriki gure Oñati patriarkaleko gazte maskulinoen artean “feminazi” hitzaren zabalkundea; zapalduak altxatzean botereak beti erreakzionatzen du. Ideiak aldatzen joan dira, baina boterea ez da lekuz aldatu, horra hor gure herria, historiako kausa eta efektu.

Badago kapitalismoa gainditu ezean patriarkatuan jarraituko dugula dioenik; bestalde, ekoizpen baliabide-

‘Handia’ filma urriaren 20tik 23ra ikusi ahal izango da Oñatin

Aldizkaria ixteko orduan ez genuen eza-gutzen artean Donostiako Zinemaldiko epaimahaiaren erabakia, eta ezin jakin, beraz, sail ofizialean lehiatu den *Handia* filmak saririk jaso ote duen. Baina, jakin badakigu, behintzat, Aitor Arregi oñatiarrak eta Jon Garañok zuzendutako filmak kritika onak jaso dituela: zuzendaritza artistiko landua, historia intimista baten kontakizun sakona, lokalizazioak, esze-nografia, aktoreen lan ona... Ikusmin handia piztu du Handia-k eta, zorionez, Oñatin urriaren 20tik 23rako asteburuan ikusi ahal izango dugu.



Kritika onak jaso ditu Aitor Arregik eta Jon Garañok zuzendutako filmak Donostiako Zinemaldian

en jabetza pribatua ezabatu diren esperimentzietik ez dute demostratu “gizonen dominazioa” gainditzeko gai izan direnik. Dena dela, Ernesto “patriarkatu sozialista”ko sinbolo izan arren, beste behin berarekin oroitu gara, jendarte igoalitario baten alde bizia eman duten beste guztiekin batera.

Kilometroak 2017 inguruan bizitako balorazio pertsonala

Judit Rezabal

Guurasoek nire hezkuntzarako GTxantxiku Ikastola aukeratu zuten bezala, nik berriz semearentzat Elkar Hezi Ikastetxean jarri dut konfiantza.

Ikastetxeen arteko elkarlanaren aldekoa naizenez (zeregin handia daukagu oraindik) eta bihotzeko lagunak Ikastolan ditudanez, parte hartzea erabaki nuen aurtengo kilometrotan: Kamiseta eta poltsa erosi, tonbolan eta zozketan parte hartu, talua jan,

txosnan kontsumitu...hori izan zanez nere parte hartze txikia. Poztu nintzan eguraldi aparta tokatu zalako eta zoriondu nahiko nuke erakutsi duten elkarlanagatik. Festa handia izan zan, ez dago zalantzarik. Halaber faltan bota dut ondoren egin diren balorazioetan bi hitz: BARKATU ERA-GOZPENAK. Eta mila esker, trafikoz mozketak jasan zuten herritarrei, etxean gelditu ziren pertsoneri (nagusiak batez ere, ibilbidea ez bait zen oso egokia beraiantzat eta kalean ibiltzea batera erraza), plazan eserleku barik gelditu zirenei, igandeko plana aldatu behar izan zutenei, kaleak moztuta aurkitu zutenei, eta oso lan gutxi egin zuten tabernariei. Egun bateko kontua zanez ez dala gehiegi eskatzea pentsatuko duzue askok; Kilometroak sortu zituen eragozpenak kontuan hartzea ere ez dala gehiegi eskatzea pentsatzen dut nik.

Beste barik zorionak Txantxiku Ikastolari, eta zorte on zuen proiektu berriarekin.

EAJ-PNV beti Kataluniarekin

Javier Galarza, Oñatiko EAJ-PNVren lehendakaria

Beste behin ere, ERNAI taldeak berriki sinatutako pankarta eta pintadak salatzen ditu Oñatiko EAJ-PNVk; akusazio faltsuen bidez, Kataluniako prozesua ez babestea, eta, Frankoren irudiarekin lagunduta, PPren eta frankisten konplize izatea leporatzen baitiote alderdi jeltzaleari.

EAJ-PNV ibilbide demokratiko luzeko alderdia da, eta beti egon da eta egongo da herri katalanaren alde. Kataluniarekin bat egin zuen Franco-ren diktaduraren aurkako borrokan; babes irmoa erakutsi zien katalanei Euskadi eta Katalunia nazio izateko eskubide historikoak berreskuratzeko borrokan, eta, halaber, katalanen alboran egon zen ETAK Hipercorren eta Vich-en aurka atentatu zuenean. Baita ETAK Ernest Lluch hil zuenean ere.

Ezker Abertzalea, ordea, (hainbat sigla erabilita: HB, SORTU, ERNAI...) ez zen egon, ez Kataluniarekin, ez katalanekin 50 atentatu (ETAK egindakoak) baino gehiago sufritu behar izan zituzten garaian. Hala ere, EAJ-PNVk ez du inoiz erabili argudiatze hori Ezker Abertzalearen kontrako pintadak eta kartelak egiteko eta jartzeko; ezta akusatzeko ere esanez gertakari horien konplizea dela.

Azken 40 urteetan, Ezker Abertzalearen estrategia eta ekintzak bestelakoak izan dira, eta, gure iritzian, orain ez dago legitimatuta, inola ere, inori zer egin behar duen esateko; ez horixe! Ezta bere burua herri katalanaren aldeko defendatzaile bakar moduan aurkezteko moduan ere, beraiek soilik izango balira bezala gaur egun Katalunia babesten duten bakarrak.

Ez gaituzte isilduko EAJ-PNVko alderdikideok. Ez gaituzte diskurtso eta akusazio faltsupean kikilduko, ezta nahastuko ere; izan ere, benetako historia ekintzen bidez frogatzen eta idazten da. Ez da pintada edo irain bidez idazten; are gutxiago, indarkeriaren bidez.

Eskerrik asko oñatiar guztioi

Zigor Ibarzabal, Txantxiku Ikastolaren izenean

Irailaren 24a nekez ahaztuko dugu Oñatiko herritarrok; izan ere, auzolanean antolatutako Kilometroak jai erraldoia oso arrakastatsua izan zen. Ez litzateke horrela izango zuek, 1600 boluntariok, emandakoagatik ez balitz. Norbanakotik kolektibora, zenbat pertsona, zenbat bilera, zenbat ordu; urte osoan egindako lanaren isla izan zen igandean bizitakoa eta bihotzez eskertzen dizuegu egindako esfortzua. Ez dira denak une politak izan, baina; haserreak eta momentu gogorak ere bizi izan ditugu urtean zehar. Hala ere, ez da horietan arreta jartzeko unea, ez horixe. Atzera begiratzean oroitzapen ederrak datozkigu burura: barre algarak, konplizitate begiradak, Ikastolarekiko atxikimendua... Auzolana ez baita soilik emaitzan neurtzen. Herriak eta herritarrek maite gaituztela erakutsi digute eta egindako guztia eskertzeko lanean jarraituko dugu. Pedagogia eta zerbitzuen alorrean dakigun hoberena eskainiko diogu berriro ere Oñatiko herriari, merezi duzelako.

Zorion mezuak iritsi zaizkigu alde ezberdinetatik: trafikoaren kudeaketagatik, komun eta eremuen garbiketagatik, arropa salmenta eta tonbolan egindako lanagatik, muntaia taldearen lan ikaragarriagatik, egindako harrera goxoagatik... Guk zorion mezu horiek zuei helarazi nahi dizkizuegu, zuek izan baitzarete horien arduradun zuzenak. Lan talde guztiek izandako jarrera positiboa izan da jaia horren arrakastatsu eta gertukoa egin duena. Hutsak huts, antolakuntza bikaina izan da; erronka handiak genituen, baina erantzuna txapela kentzeko modukoa izan da. Zorionak eta mila esker era batera edo bestera zuen ekarpena egin duzuenoi. Esperientzia ahaztezina bizi izan dugu Ikastolako kideok, eta zintzo esan nahi dizuegu betiko eskertuko dizuegula egindako esfortzua. Gogoan hartu, behar duzueneko Txantxiku Ikastolako ateak zabalik daukazue.

Herriko jaiak igaro dira, eta merezi zenuten legez, ondo pasa eta ospatuko zenituztela espero dugu. Errespetuan eta berdintasunean oinarritutako bizi eredia nahi dugu, eta Ikastolari auzolanean erakutsi dizkiozuen baloreak kolektibotik norbanakora igarotzeko unea da. Segi LEKAIXOKA!

Mila esker guztioi!



HERRIKO MUS TXAPELKETA

Lazkaoko Jon eta Beasaingo Benitok osatutako bikoteak irabazi zuen Mikel Deunaren MUS txapelketa. Txapela, garaikurra eta 600€-ko saria jaso



zuten. Guztira 29 bikotek parte hartu zuten. Lehenengo oñatiarrak, hirugarren sailkatuak, Jose Ramon Ugarte eta Pepe iza ziren.

- Arazerixan -



HAUR ETA GAZTERIAREN INGURUAN...

#musika - Gazte elkarten sustapenerako, eta musika taldeen CD grabazioetarako, diru-laguntzen bigarren epealdia urriaren 16tik azaroaren 10 izango da!

#emantzipazio - Emantzipazio diru-laguntzak eskatzeko epea urriaren 13an bukatzen da, arratsaldeko 14:00etan, beraz kontuz eta denboraz ibili!!

#kuboa - Ei! Kubua haunditu in dala ala? Bai, hala esan daue. Goazen ikustera

#GO-AZEN 4.0 - Denboraldi berria: Aurre estreinaldia izango da aurten ere Gazte-lekuan, urrian, aurrerago zehaztuko dugun datan.

#GO-AZEN 4.0 - Denboraldi berria: Abenduaren 17an berriz, GO-AZEN 4.0ko aktoreak Gaztelekuan izango ditugu, denboraldi berriko antzerkia eskaintzen.

#horkonpon - Oñatiko Hor Konpon talde mitikoa berriz elkartzekotan da, emanaldi gutxi batzuk emateko asmoz, eta horretari-ko bat Gaztelekuan izango da, negu honetan, ez galdu!!

#udabidai - Topalekuko Gazteak 2018ko udarari begira dagoeneko! Tantzaz tanta iritsiko gara gure ametsera!

#akustikoan - ETS taldea ere izango da Gaztelekuan negu honetan, ETSko kide batzuk arratsalde pasa bat egingo dute Gaztelekuko gazteekin, eta akustikoan ere abestuko digute.

#sotogurasoak - Gaztelekuko Sotoko arauak ez dira betetzen behin eta berriz, baina horiek bete arazteko arduradunak gurasoak zarete!!

#jostailutruke - Adi guraso Gabonen aurretik antolatuko dugun bigarren eskuko jostailu azokari. Kontsumismoa gaindituz eman diezaiegun gure jostailuei bigarren aukera bat.

#tirolina - Ibarra jolas-kirol gune berrian oraindik ere haur eta gazte zuzendutako elementu berriren bat jarriko da, gunea erabat osatzeko.

#gazelokalak - Gazteen erabilerako Oñatin dauden lokalak Udal ordenantzara egokitzeko epea, eta horretarako dagoen diru-laguntza, abenduaren 31an bukatzen dira, denboraz ibili!

#gaztekirol - Udazken kirolari Gaztelekuan! Kirol ezberdinez gozatu nahi?

#arimengaua - Felixa, Felixa, etorri gugana! Felixa, Felixa, emaguzu argixa!

#xake - Aurten ere Gaztelekuko xake txapelketa izango da udazkenean, eta honekin 23 urte jarraian goiaz xakea bultzatzen!

#ludoteka - Jolasaren garrantzia, Ludotekan urte osoan ate irekiak!



SACCO ETA VANZETTI

*Maintenant Nicolas et Bart
Vous dormez au fond de nos coeurs
Vous étiez tous seuls dans la mort
Mais par elle vous vaincrez.*

(Benetan Nicola ta Bart
Barne-barnean zaituztegu
Herioan bakarturik
Garaile bihurturik).

Bien omenez, **Joan Baez eta Georges Moustaki** abeslariak abesti ederra, goxoa eta sarkorra utzi digute poematxo musikatuan. Interneten entzun ditzazkegu.

Abuztuan bete dira 90 urte Nicolas Sacco eta Bartolome Vanzetti emigrante anarkistak New Yorken " aulki elektriko"an hil zituztela,elektrokutatuta. Nortzuk ziren, ba, XIX. mende bukaeran Italian jaio eta hamazazpi eta hogeia urterekin beste asko bezala Estatu Batuetara emigratu behar izan zuten bi gazte horiek?

Orain ehun urte, Ipar Ameriketara, industrializazioaren eraginez, fabrika berri ugari zabalduz langileen beharra



**Bittor
Madina**

gehitzen ari zen. Denbora horretan, irlandarren eta, gehienbat italiarren emigrazioa ikaragarria izan zen. Emigrazio bolada horretan joan ziren Sacco eta Vanzetti. Europatik zeramatzen anarkismo eta sozialismo ideia berriak txertatuz eta onartuz, langile kontzientzia indartu zen. Lan baldintza negargarriak, soldaten mixeriak eta kapitalisten talde armatuen biolentziak ziren nagusi; bestaldetik, meategietako eta beste sektoreetako langileen greba orokorrek eta anarkisten defentsa armatuak giro iraultzailea sortzen zuten.

1915etik aurrera, Gobernuarentzat , anarkisten mugimendua zen giro iraultzailearen errudun nagusia. Mugimendu horretan, oso ezagunak eta maitatuak ziren Sacco eta Vanzetti.

1920ko maiatzean, lapur batzuk,atrako batean, Banku bateko enplegatua eta zaintzailea hil zituzten.Pistola bana zeramaten aitzakiarekin , beste askoren

artean, Sacco eta Vanzetti biak ere detenitu zituzten.Gobernuak , bi liderrak epaituz, eskarmentu latza eman nahi zion langile mugimenduari . Bost bat urte iraun zuen epaiketak eta bertan lekuko gehienek eta atrakoa egin zuenetako batek ere, Saccok eta Vanzettik ez zutela hilketan parte hartu testifikatu zuten. **"Akusatuak, Sozialismoarengatik dira errudunak", zioen Tribunaleko Presidenteak.**

Probarik,ez!

1927ko apirilean heriotz zigorra ezarri zieten. Europa eta Ipar-Hego Ameriketako Hiri haundienetan egundoko solidaritate-kanpaina eta manifestazioak burutu ziren: Paris, Berlin, Amsterdam, Roma, Londres,Tokio,Nueva Dehli, Buenos Aires.... Alperrik! **Abuztuaren 27an elektrokutatu zituzten, euren heriotza betirako injustiziaren sinboloa bihurtuz.**

1970ean, Massachusettseko Estatu Gobernadoreak ofizialki onartu zuen, Sacco eta Vanzettiren epaiketa akatsez beterik eta erabat politikoa zela. Ondorengo heriotzak ere injustizia galanta izan zela.

SAN MARTIN GUNEAN

laster... Bizitzera joateko prest!





Informazioa: 689 420 761



Construcciones | Eraikuntza Lanak

Irelore Golf Eskolak

15 URTE

Pilotak jaurtitzeko teilape batekin hasi zela bihurtuta dago gaur egun Irelore

zena, 9 zulo *Pitch&Putt* erako golf

Hambost urte bete dira Irelore Golf Eskolak atek zabaldu zituenetik. Hasieran praktiketarako kantxa bat besterik ez zena, *Pitch&Putt* erako golf zelai zoragarria bihurtuta dago gaur egun. Asko aldatu da Irelore urte hauetan, baina helburua hasierako berbera da: herritarrei aukera ematea golfa ezagutu eta praktikatzeko. Bertako arduradun Jabi Balzategirekin izan gara.

Pilotak jaurtitzeko teilape bat eta 250 metroko zelai batekin hasi zuen bere bidea Irelore Golf Eskolak 2002ko uztailean. Debagoieneko udaletako kirol zerbitzuek golfa sustatu nahi zuten, eta Jabi Balzategik heldu zion erronkari. "Nire helburu nagusia zen, tenisarekin

eta beste kirol batzuekin egin izan dudan moduan, Oñatiko jendeari aukera ematea golfa ezagutu eta praktikatzeko".

Handik hiru urtera, *green* bat, eta sei

zulo txiki egokitu zituen praktiketarako kantxan bertan, golf zelai bateko arauak ikasteko aukera izan zezan jendeak.

Baina Irelore golf eskolako benetako iraultza orain dela bost urte gertatu zen. Jendeak gehiago nahi zuela ikusita, *Pitch&Putt* erako (zuloen arteko distantzia 40 eta 120 metro artean egon behar da) 9 zulo egokitu zituen Balzategik. Gainera, zulo bakoitzak bi irteera desberdin dituen (distantzia eta angelu ezberdinekin), praktikan 18 zulo zelaia da, Espainiako federazioak homologatuta. Gipuzkoan dagoen *Pitch&Putt* erako zelai bakarra



JABI BALZATEGI

Herritarrei golfa ezagutu eta praktikatzeko aukera ematea izan da gure helburua hasieratik



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



9 ZULO ETA 18 IRTEERA. 58 eta 120 metro arteko 9 zulo ditu Irelore Pitch&Putt zelaiak, zein baino zein ederragoak, goiko argazkietan ikusten den moduan. Zulo bakoitzak bi irteera ezberdin ditu, angelu eta distantzia desberdinekin, eta, beraz, praktikan 18 zulo dira. Espainiako golf federazioak homologatuta dago. Praktiketarako kantxa eta green bana ere baditu.

UR PUTZUA. Goiko argazkiko putzuan batutako euri urak baliatzen dituzte ureztaketa egiteko

da (Zarautz, Hondarribia, Donostia eta Andoainen golf zelai handiak daude).

Golf zelaia egitearekin batera, 300m²-ko ur putzu bat ere egokitu zuten Ireloren, eta bertan batzen diren euri urak baliatzen dituzte zelaia eta, bereziki, *green*-ak ureztatzeko.

TXAPELKETAK ETA FORMAZIOA

Gaur egun 150 bazkide ditu Irelorek. Hileroko kuota baten truke (35€) nahi bestetan joan daitezke bertara jokatzera.

Baina Irelore golf eskolako jarduera ez da horretara mugatzen. Tarteka, beste klubak (Araba, Nafarroa, Asturias, Galizia, Andorra...) aurkako lehiaketak, eta sari bereziak antolatzen dituzte, eta baita txapelketa ofizialak ere. Irailean, adibidez, Gipuzkoako *Pitch&*



FORMAZIOA.
Gazteei nahiz helduei zuzendutako formazio saioak eskaintzen ditu Irelore golf eskolak

TXAPELKETAK.

Irelore taldeko Txema Beitia Euskadiko *Pitch&Putt* rankineko lehen postuan dago



Putt-eko txapelketa absolutoa jokatu zen bertan, eta Euskadi mailako txapelketak ere jokatu izan dira Ireloren. Datorren urtean Espainiako txapelketa ekarri nahi duela aurreratu digu Balzategik.

Emaitzei dagokionez, azpimarratzekoa da Irelore taldeko Txema Beitia Euskadiko *Pitch&Putt*-eko rankineko buruan dagoela une honetan, eta hil honetan jokatuko den Espainiako txapelketan parte hartuko duela.

Baina hasieran esan dugun moduan, golfa gizarteratzea da Irelore golf eskolaren sorrerako helburua, eta gaur egun ere lan handia egiten jarraitzen du formazioaren arloan.

Alde batetik, gaztetxoei zuzendutako eskolak daude. Golfa ikasi nahi duten neska-mutilek asteazken eta ostiral

arratsaldeetan dute aukera ikasturte osoan zehar. "Politto jokatzen duten hiruzpalau gaztetxo ditugu, eta aurten konpetitzen has daitezten nahi dugu".

Udako kirol kanpainan ere gaztetxo asko (aurten 90) joaten dira lehen kolpeak ematera, eta, bestalde, diputazioaren bitartez ikastetxei (LHko 3, 4, 5 eta 6 mailako ikasleei) zuzendutako formazio saioak ere eskaintzen ditu ikasturtean zehar. Oñatiko ikastetxeentzat dohainik da.

'HANDICAP'a BERTAN

Helduei zuzendutako formazio saioak ere eskaintzen ditu Irelorek. "Nahi duten orduan etor daitezke. Lehenengo saioa dohainik izaten da. Irelore zer den, nola funtzionatzen duen, eta golfa zer den erakusten zaie" azaldu digu Balzategik. "Nahikoa izaten dira hamar klase oinarrizkoa ikasteko eta golf zelaira irteteko. Lehenengo bi irteerak nirekin batera egiten dituzte. Horrek denak 70 euro balio du".

Aste osoan, astelehenetik igandera, goiz eta arratsalde egoten da zabalik Irelore. Beraz, golfa zer den ikusi edo ikasi nahi duenak, bertara azaldu besterik ez dauka. *Handicap*-a ere (golf zelaitan jokatzeo aukera ematen duen txartela) Ireloren bertan ematen dute.

HELBURUAK BETETA

Hamabost urteko ibilbidearen ondoren, hasierako helburuak betetzen ari direla uste du Balzategik. "Promozio lan inportantea egiten ari gara, eta, gainera turismoari begira ere baliabide bat gehiago da. Jende ugari etortzen da kanpotik (Katalunia, Madril...). Harrituta geratzen dira hemen ditugun inguruekin, eta hemendik Oñatira, Arantzazura edo Arrikruzeko kobetara bideratzen ditugu".



Argk.: OK Magazine

Oñatiarrak protagonista mendi lasterketen Euskal Kopa konbinatuan

Euskal Mendizale Federazioak antolatuta, aurreneko aldiz jokatu da aurten mendi lasterketen Euskal Kopa konbinatua, distantzia eta modalitate ezberdineko hiru proba puntuagarriekin: Aloñako Igoera, Euskal Herria Mendi Erronka ultra, eta Beriaineko Kilometro Bertikala. Eta oñatiarrek maila bikaina erakutsi dute, bost sari eskuratuz. Xabi Letek gizezkoen maila nagusia irabazi du, Maite Anton hirugarren sailkatu da emakumezkoetan, eta Jokin Atxagak eta Nagore Uribarrik promesa eta junior kategorietan nagusitu dira. Gainera, Aloña Mendi azpitxapelduna izan da taldeka.

MENDI IRTEERA / Urriak 22

ARALAR MENDIKATEA Hirumugarrieta (1.430)



Uztailan Gran Fachan ateratako argazkia (Aloña Mendi)

Aloña Mendiko Mendi sailak urrirako antolatutako irteerak Aralar mendikateko Malloak zeharkatuko ditu. Gaintzatik abiatu eta Malloen aurpegi zorrotzetik gora, punturik altuenera iritsiko dira, Intzako Dorrea edo Hirumugarrieta (1.430m.). Handik behera egingo dute, Lizarrustiraino. Guztira, 15km. (+1.150m), zailtasun barik. Goizeko 8etan irtengo da autobusa postetxe parean. Hilaren 19a baino lehen eman behar da izena, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com. Prezioa: 10€. Federatuta egon behar da.

HITZALDIA




'A la velocidad de las mariposas'. 2004-2017 munduari buelta mendi eta bideetan zehar

Aloña Mendiko Mendi sailak antolatuta, Alvaro Neil asturiarrak hitzaldia emango du urriaren 24ean. Hamahiru urtez bizikletaz munduko 114 herrialde zeharkatu dituen clwon-a da Alvaro. Azaroaren 19an iritsiko da bere sorterrira, Oviedora, eta aurretik geldialditxo egingo du Oñatin bere bizpenak kontatzeko.

Gordoa, Gipuzkoako distantzia luze igerilari onena

Gipuzkoako Itsas zeharkaldien liga irabazi du Xabi Gordoa, puntuagarriak ziren 6 probetatik 4 eginda, eta erregulartasun handia erakutsiz: Getaria eta Zarautz artekoan 8., Txingudin 4., Donostiako Irlan 8. eta Kontxako Badian 5.



Arrasate-Oñati urriaren 14an

Atxintxiketan elkarreak antolatuta, urriaren 14an (17:00) jokatuko da 34. Arrasate-Oñati lasterketa (11,7km.) korrika eta patinetan. Izena (12€) www.herrickrosa.eus webgunean egin behar da. Egunean bertan ezingo da izena eman.



Gurasoen Mintegiak

Txantxiku Ikastolaren ikuspegi pedagogiko metodologikoaren gaineko mintegiak

Konfidantzaren Pedagogia: Marko Orokorra

Guraso guztientzat:
Konfidantzaren pedagogiaren
iturriak eta oinarriak

Azaroak 22 eta 29

0-3 urteko Haurren Mintegia

Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko umeen gurasoei
eta haurdun dauden gurasoei zuzenduta dago.

Umeek bere beharrik komunikatzeko igortzen dituen seinaleak hobeto ulertu eta erantzun egokiak emateko laguntzea dute helburu. Mintegiak bi arduko icupena izango dute eta ostial aratsaldetan izango dira 17:00etatik 19:00etara eta ikastolako arduradun pedagogikok bideratuko dituzte. Mintegi hauek, saio bakoitzak 1.5Eko kostua izango du familiake.

2017-10-20: Mintegiari sarrera. Haurdun lehen 6 urteen garrantzia. Erritmo biologikoa.

2017-11-17: Abuztuzko saria. Abuztuzko motak.

2017-12-22: Bonaketa, galera eta dolua.

2018-02-23: Mintzako saria. Garapen kognitiboa.

2018-03-23: Mintzako saria. Emmi Pikleren ekarpenak.

2018-04-20: Ihes egiteko saria, baldura eta erasotzeko saria.

2018-05-25: Kidetzeko saria: berdinen arteko harremanak.

EKI DBH Gurasoak

EKI Euskal Kurrikulumean oinarrituta, kompetentzien
garapena lantzen duen metodologiaren
eta baliabideen aurkezpena.

Urriak 10: Zer da EKI? Egitasmo arakoraren aurkezpena.

Urriak 17: Material didaktikoa eta ingurune birtuala azagutzera.

Urriak 31: EKI ebaluazioa: Kompetentzien oinarritutako ebaluazioa.

Izen emateko urriak 16a arte, Txantxiku Ikastolako Markatzen: 943 78 12 04 • txantxiku@ikastola.eus



LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017. OÑATI

ESKERRIK ASKO!

“GURE ZOZKETA”ko zenbaki saritua: **27518**



Oñati!

Hilabeteko epene zenbaki saritua azaltzen ez bada, 41.699 ordezkio zenbakiak beste hilabete bat izango du saria jasotzeko.

LITERATURA OHOLTZA GAINEAN

Antzerki generoari erreparatuko dio aurtengo Bibliotekaren Egunak. Oñatiko III. Literatur Topaketak egingo dira urriaren 24 eta 25ean.

Urriaren 24an Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta munduko beste hainbat liburutegik bezala, Oñatiko Udal Liburutegiak ere adin guztietako herritarrei zuzendutako ekitaldi sorta antolatu du, 'Literatura oholtza gainean' lelopean.

Izenburuak aditzera ematen duen moduan, antzerkia izango da ardatza eta berbagai nagusia. Literatur genero honi zabaldu nahi zaizkio ateak, bere bitartekari izaerari erreparatuz, interlokutore ezberdinen arteko elkarrizketak sustatzen dituen heinean.

Hala, urriaren 24an haur txikiei (1-3 urte) zuzendutako 'Glu-glu' antzezlan poetiko, bisual eta iradokitzailea egongo da, *Colectivo Humo* taldearen eskutik.

Egun berean, Oñatiko III. Literatur Topaketei emango zaie hasiera. Danele Sarriugarte (orain arte euskarazko *Tertulixan*-irakurle taldearen dinamizatzailea izan dena) eta Yurre Ugarteren (dinamizatzaile berria) arteko solasaldi interesgarriekin.

Urriaren 25ean, 'El falso paraguay' (Colectivo Monstrenko), barre eta gogoeta eragingo digun antzerki laburra (20') ikusteko aukera izango dugu zine aretoan, eta jarraian literatura topaketen bigarren saioa. Mahaingurua izango da, Iván Repila idazleak gidatuta, eta literaturaz eta antzerkiar hitz egingo du Colectivo Monstrenko-ko kideekin.

Hilaren 26an Ostegun Kontalariak ekimena jarriko da martxan berriz ere, eta aste osoan zehar liburutegira bisitak egingo dituzte 4 urteko umeek ikastetxeen bitartez.

Liburuak edo pelikulak mailegatzeko, edo ikasteko lekuak baino gehiago dira liburutegiak. Aniztasuna errespetatuz, harremanak sortzeko topalekuak dira liburutegiak.



ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

LIBURUTEGIEN NAZIOARTEKO EGUNA

Espainiako Haur eta Gazte Liburuen Lagunak elkarteak sustatuta, 1997az geroztik ospatzen da Liburutegien Eguna urriaren 24an, Balkanetako gatazkan erre zuten Sarajevoko liburutegia oroitzuz. Eraso basati haren aurrean, Mirko D. Grmek mediku eta historiagileak *memoricidio* hitza sortu zuen, "bestearen" (aurkaria, etsaia) kultur ondasuna eta memoriaren suntsiketa definitzeko.

Liburutegiek (publikoek, pribatuek, unibertsitarioek...) altxor handiak gordetzen dituzte, eta horiek suntsitzea, edo ez babestea, azken batean memorizidiodio bat da, handiagoa edo txikiagoa.

Eta liburutegiak babesteko modurik onena da, ezagutzera ematea, atek zabaltzea, txokorik ezkutuenak bistaratzeta, eta apal hotzetan dauden dokumentuak irakurleen eskura jartzea. Eta, batez ere, horiei buruz hitz egitea eta hitz egin araztea.

EGITARUA - Bibliotekaren Eguna 2017

URRIAK 24 - ASTEARTEA

18:00 ANTZERKIA: 'Glu-glu' (Colectivo Humo)
Haur txikientzat (1-3 urte).

Haur txikientzako antzezlan poetiko, bisuala. Ia testurik gabe. Ura (itsaso bezala, jolas bezala, bizitza bezala) ardatz duten ekintza ezberdinak taularaten dituzte. *Haur liburutegian.*



19:00 III. LITERATUR TOPAKETA. Solasaldia.

Gonbidatua: Yurre Ugarte (Euskarazko Tertulixan-irakurle taldearen dinamizatzaile berria). Dinamizatzailea: Danele Sarrugarte. Irakurle gisa duten esperientziak jardungo dute. *Zine aretoan.*

URRIAK 25 - ASTEAZKENA

19:00 III. LITERATUR TOPAKETA.

Antzerkia eta mahaingurua.

-ANTZERKI MOTZA (20'): 'El falso paraguayo' (Colectivo Monstrenko).

Norekin hitz egiten dugu, geure buruarekin ari garenean? Zer gertatzen da, ezer gertatzen ez denean? Gai al gara isiltasunean egoteko, egonezin barik? Non gaude, jendez inguratuta baino inorekin ez gaudenean?... 'El falso paraguayo' da tarteka bisitan etortzen zaigun ahots hori, gure ekintzak zuzendu eta gure hauskortasuna agerian uzten duena. Barre eta, aldi berean, gogoeta eragingo digun antzezlan motza, Gasteizko colectivo Monstrenko taldearen eskutik.

-MAHAINGURUA: Gonbidatua: Colectivo Monstrenko. Dinamizatzailea: Iván Repila, idazlea. Literaturaz eta antzerkiak hitz egingo dute. *Zine aretoan.*



URRIAK 26 - OSTEGUNA

18:00 OSTEGUN KONTALARIAK

6-9 urte arteko gaztetxoei zuzendutako ipuin kontaketa saioa ('Eneko Haritza') Virginia Imazen eskutik.

Haur liburutegiko irakurketa-kluba

Bularretik Mintzora kanpainaren baitan Irakurketa-Kluba izeneko ekimena egingo da aurten ere Haur Liburutegian. Galtzagorri elkarteko profesionalak gidatuta, hainbat saio egingo dira (irakurketa ozenak, liburu aurkezpenak, irakurritako liburuei buruzko komentario eta gomendioak...) haurrei (4-6 urte) eta gurasoei zuzenduta. Helburuak hauek dira: irakurketa sustatzea, kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea, gurasoen eta haurren artean irakurketa giroa sortzea... Hiru saio izango dira, **azaroaren 8, 15 eta 22an**, arratsaldeko 17:30etan, Lur Korta ipuin kontalariaren gidaritzapean. Plaza mugatuak dira (12 haur). Urrian zehar eman behar da izena liburutegian: 943716111 / liburutegia@onati.eus. Izena ematen dutenek hiru saioetan parte hartu beharko dute.

Tertulixan - Irakurle Klubak

Ikasturte berriarekin batera Tertulixan-Irakurle Klubak jarriko dira martxan udal liburutegian. Bata euskaraz, eta bestea gazteleraz. Ohi bezala, hilean behin elkartuko dira, aurrez irakurritako liburua (elkarrekin adostutakoa) komentatzeko.

Aurten dinamizatzaile berriak izango dira: **Iván Repila** (Bilbo, 1978) idazle eta editorea gaztelerazko taldean, eta **Yurre Ugarte** (Tolosa, 1965) idazle eta zinegilea euskarazkoan. Urriko literatur topaketan parte hartuko dute biek. Azaroan hasiko dira irakurle taldeen ohiko saioak. Udal liburutegian eman behar da izena.



Iván Repila eta Yurre Ugarte

ESKULAN IKASTAROAK 2017-2018

PATCHWORK, PINTURA, ESKULAN DEKORATIBOAK eta SENDA BELARRAK



Udaleko Kultura sailak 2017-2018 ikasturterako antolatu dituen eskulan tailerretarako izen-emate epea zabaldu du. Aurten ez da zeramika tailerrik egongo, ezin izan delako irakaslea aurkitu. Gainerakoan, iaz bezala, Pintura (nagusientzat eta gazte-txoentzat), Eskulan Dekoratiiboak, Hari-Lanak (*Patchwork, Hardanger, Myreska, Ajoureta, Mayorquin* eta *Richellier*) eta Senda Belar tailerra daude aukeran. Interesatuak urriaren 18a baino lehen eman behar dute izena kultur etxean, arratsaldean (943780353 / kultura.idazkaritza@onati.eus). Goiko QR-an ikus dezakezue informazio guztia

MENDIA ETA NATURA ARGAZKI LEHIAKETA

Aloña Mendiko Mendi sailak XIV. Mendia eta Natura argazki lehiaketa antolatu du. Ohi bezala bi atal izango ditu: 'Gizakia mendian' (gizakiak egindako ekintzak mendi ingurunean, konpetizioa izan ezik) eta 'Mendi ingurunea' (paisaiak, mendia, flora, fauna...).



lazko lehiaketako irabazleak. Xabi Mata eta Iker Pardoren argazkiak

10€ko inskripzio-kuota ordaindu beharko du partaide bakoitzak, eta gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango dira atal bakoitzean. Internet bidez aurkeztu behar dira argazkiak www.concursosdigitales.com atarian, urriaren 22a baino lehen. Atal bakoitzean 500€, 300€ eta 200€-ko hiru sari emango dira, eta 200€ko beste bat, oñatiar onenarentzat. Partaide bakoitzak sari bakarra eskuratu ahal izango du atal bakoitzean.

Plazako dantzen ikastaroa eskainiko du aurten ere Musika Eskolak

Iazko ikasturtean izandako arrakasta ikusita, aurten ere plazako dantza tradizionalen ikastaroa eskainiko du José de Azpiazu musika eskolak. Urriaren 4tik aurrera, asteazkenetan izango dira saioak Zuazola Institutuko gimansia gelan, eta iaz bezala, Patxi Montero dantza-maisua izango da irakaslea.



Ikastaro honen helburua da gure kulturako dantza eta dantzakera tradizionala barneratzea (lotuan, soltean, kontradantzak, sokadantzak...) talde edo bikote dantzaren gozamenaren deskubritzea edo gozatzeko ahalmena handitzea, eta plazako dantza aberastea (dantzakera, baliabideak eta errepertorioa).

'Pinotxo, hariekin lotu gabe' ikuskizuna Kursaal jauregian eskainiko dute

Ganbara faktoriak ekainean estreinatu zuen *Pinotxo, hariekin lotu gabe* musikala Donostiako Kursaal jauregian taularatuko du urriaren 21ean, arratsaldeko 18:00etan. Sarrerak internetez (www.kursaal.eus) eskura daitezke (helduak 7€ / haurrak -12 urte arte- 3€).

ETXiAN
Oñatiko inbiliaria berria
Donostian etxea prosteko ere, aukera onenen informazioa eta laguntza

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi al duzu Oñatin?

Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net

Etxian

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Pantanal-eko aberastasuna argazkitan

Anton Arangurenek Brasilgo Pantanalera egindako hainbat bidaiatan ateratako argazkiak egongo dira ikusgai kultur etxean / **urriak 23 - azaroak 5**

Brasil, Bolivia eta Paraguai artean kokatua, munduko hezegune tropikal handienetakoa da Pantanala (340.500km²). Animalia eta landare biodibertsitate aberatsena duen ekosistema da, ziurrenera: 650 hegazti espezie, 90 ugaztun, 177 narrasti, 263 arrain, 3.500 landare... natura maite duen ororentzako benetako paradisu.

Hala ere, gure artean ez da oso ezaguna Pantanala, eta horregatik antolatu du erakusketa hau Anton Aranguren oñatiarrak. Bera sei aldiz egon da bertan, eta argazki bidez erakutsi nahi du hango aberastasuna.

Formato handiko 42 argazki jarriko ditu kultur etxean. Pantanalean barrena, oinez, zaldiz, autoz eta txalupaz egindako ibilaldietan ateratako argazkiak dira. Abionetatik ateratako argazki ikusgarriak ere badira tartean, eta bideoren batzuk ere egongo dira ikusgai, hegaztien kantu eta hegaldi ederrez ere gozatzeko.

Pantanaleko edertasuna erakusteaz gain, bertan gertatzen ari den deforestazio prozesua ere salatu nahi du Arangurenek erakusketa honen bidez. UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zuen Pantanala 2000. urtean, baina, zoritxarrez, azken urteetan baso eta oihan zati handia (%18) galdu da, etengabe hazten ari diren soja-plantazioen ondorioz, eta galera horri aurre egiteko 'S.O.S. Pantanal' kanpaina jarri da abian.

Animalia-trafiko ere kalte handia egiten ari da Pantanalean, Arangurenek salatzen duenez, eta gogorarazi nahi du guakamaio, papagaio, perikito edo sugeak bezalako animaliak ez direla jai maskota izateko. Ilegalki harrapatutako 10 animalietatik bat bakarrik iristen omen da bere destinora.



fontanería y calefacción

BELOKI

- > Iturgintzako material salmenta
- > Romun eta sukaldeetako erreformak
- > Rzuilejoen salmenta

- > Kalefazioa eta aire girotua
- > Diseinua, dekorazioa eta opariak
- > Obren koordinazioa

Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI

%20ko deskontua
erakusketako altzarietan

AGENDA

10 URRIA



ODOL ATERALDIA

> URRIAK 6 / 17:00

Enpresagintza fakultatean, 17:00etatik 19:00etara.

HITZALDI-TERTULIAK

> URRIAK 17 / 17:30

'PERRETXIKOAK-SETAS'

Pake-Lekukk antolatuta. Hizlariak: Bittor Altube eta Javier Galarza. Pake Lekun



> URRIAK 17 / 18:30

'ETERNA EVOLUCIÓN'

Román Agirrerren hitzaldia, Oñatiko Yoga Eskolak antolatutako jardunaldien barruan. Kultur etxean.

> URRIAK 18 / 18:30

TERTULIA YÓGICA

Oñatiko Yoga Eskolako kide diren Maite Anduaga, Jose Luis Anduaga. Louordes Igartua eta Gerardo Eskarzaren arteko mahai ingurua. Kultur etxean.

BERTSO JAIALDIA

> URRIAK 7

Zubikoa kiroldegian 22:30

BERTSOLARIAK:

- Amets Arzallus
- Maialen Lujanbio
- Unai Iturriaga
- Igor Elortza
- Maider Arregi
- Andoni Goitia

GAI JARTZAILEA
Txinparta Bertso Eskola
GAI EMAILEA
Egoitz Atxaga
SARRERAK:

Nagusiak 10€/ Gzteak 8€.
Aurrez salgai Txokolateixan.

LEIHAKETAK

> URRIAK 8

AGERIKO MARGO LEHIAKETA
Oñatiko XV. aire libreko margo lehiaketa egingo da goiz osoan zehar. Bertara aurkezten diren lanak eta pintura ikastaroetako lanak ikusgai egingo dira urriaren 8tik 22ra kultur etxean

MUSIKA

> URRIAK 8 / 19:30

TRISTTAN MOURGUY

Donibane Lohizuneko musikari bakarlaria da Tristtan.

Olerki eta bertsoak gitarraren laguntzaz abesten ditu. Folk-pop-rock progresiboaren eragina du bere musikari. Pako tabernan.



> URRIAK 20 / 22:00

KOBRAZULO

Antzuolako rock taldearen kontzertua. Pako tabernan.

> URRIAK 28 / 22:30

ANARI

Anari musikari azkoitiarrak bere azken lana aurkeztuko du Gaztelekuan.



Aurretik Mutrikuko Garoa taldea ariko da. Gaztelekuan.

BIDAIAK

> URRIAK 25

PRADEJON (ERRIOXA)

Txanpinoiengatik ezaguna den Errioxako Pradejon herrira joango dira Pake Lekukoak.

ZINEA

> URRIAK 5-9

'OPERACION CONCHA'

Zine emanaldiak hasiko dira kultur etxean. Zine Klubaren tartean 'Déjame salir' egongo da ikusgai urriaren 5ean, eta asteburuan berriz 'Operación Concha' film estreinatuko berria.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



IKASTAROAK

> ARGAZKILARITZA

Ilunpetan Argazki Taldeak antolatuta. HASTAPEN maila: as-telehenetan (gazteleraz) eta asteartetan (euskaraz), 18:00-19:30 (8 aste +larunbat goiz bat); 70€. SAKONTZEN maila: hamabostean behin, asteartetan (19:30-21:00), urritik ekainera; 180€. Izen-ematea: 605 753966 ilunpetan@gmail.com



> ARGAZKILARITZA

Oinarrizko argazki ikastaroa, Plazaola dendak antolatuta. Urriaren 28tik abenduaren 2ra arte, larunbatetan (9:00-13:00). Plaza mugatuak (12). Prezioa: 75€ (plazaoladigital@gmail.com). Izen ematea: www.plazaolafoto.com edo dendan bertan.

> KZ GUNEA

KZGuneak urrirako antolatu dituen ikastaroak: 'Musika aplikazioak zure gailuetarako', 'Oinarrizko Internet', 'Ordainketak internetez segurtasunez', 'Lan bilaketa interneten', 'Argazki ukituak GIMP bidez', 'Wordpress', 'Skype eta Hainouts'. Informazioa: 943 023 672 / tutor.onati@kzgunea.net

HAURRENTZAKO ANTZERKIA

> URRIAK 21
SANTA ANAN, 17:00

'Alicia Lurralde Miresgarrian', Glu Glu taldeak haurrentzat egokitu duen antzerki musikatua ikusi ahal izango dugu Santa Ana aretoan. Lewis Carrol-en ipuin klasikoan oinarrituta, Alizak ikasiko du zein garrantzitsua eta dibertigarria den gauzak ikastea, dantza, abesti eta eskema komikoen bidez. Sarrera: 3,5€

> SUKALDARITZA MAKROBIOTIKOA

Urriaren elikadura osasungarria eta sukaldaritza makrobiotikoko ikastaroen 9. edizioa hasiko da. Igandeetan talde berriak osatuko dira. Informazio gehiago: 658719089



AZOKA

> URRIAK 21 / 9:00-14:30

ELKARTASUN AZOKA

Bigarren eskuko liburu eta diskoen azoka. Foruen plazan.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Telesaila
"Black Mirror"



Telesaila
"Good wife"



Liburua
"Telleria eta gero, zer?"



Haur liburua
"Nire pixontzia"



Liburua
"Mi gran familia europea"



Liburua
"Tu futuro. Consejos de..."

MERKATU TXIKIA

> **KLASE PARTIKULARRAK** Esperientzia handia duen irakasleak klase partikularrak ematen ditu udan eta urte osoan. 653 718 030 / 943 782 843 (Jaione).

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Urriak 11, 20, 21, 22, 30 eta 31. Azaroak 8 eta 9..

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Urriak 5, 13, 14, 15, 23 eta 24. Azaroak 2.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58
Urriak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26. Azaroak 1, 3, 4 eta 5.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28
Urriak 9, 10, 12, 18, 19, 27, 28 eta 29. Azaroak 6 eta 7.

not+vello

Argi pultsatu bidezko fotodepilazioa (IPL)

Depilazio berrizartzea sistema modernoa eta berrizartzea.

Oñati

Olakua 1 ☎ 943 71 67 13 onati@nomasvello.com

FOTODEPLAZIOA IPLGAZTETZEA OPARI TXARTELAK AZALEKO GARBIKETAK

Jantzi garbitzaileak www.nomasvello.es

Plaza nagusia (III)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Aurreko bi hilabetetan agertu ditugun bi lanetan Oñatiko plaza nagusiaren bilakaera eta garrantzia azaltzen saiatu gara. Inguru horretan eta hamarkada askotan zehar jarri diren denda, taberna, banku, estanko eta beste era bateko komertzio batzuk ere aipatu ditugu. Baina herriko erdigunean dagoen **Foruen enparantza** horrek beste hainbat bulego, elkarte eta zerbitzuri ere eskaini dio kokalekua. Horietako zenbait udaletxean bertan egon ziren.

Udaletxean kokatutako bestelako zerbitzuak

Azken urteotan kontzejuaren etxetzar horretan udal administrazioari zuzenean dagozkion bulegoak ezagutu ditugu, batik bat. Baina beste garai batzuetan **hamaika erabilera eman zaio eraikin publiko horri**. Beraz, hemen gaur egun ezohikotzat joko genituzkeenak azpimarratuko ditugu:

- **Alondegia:** edariei ezartzen zitzaizkien zergak diru-itu-ri oso garrantzitsuak izaten ziren udalarentzat. Hori bideratu eta kontrolatu ahal izateko, udaletxearen atzeko partean, Lukaseneko kanto aldera, zegoen herriko *alondigia* bere baskulatzar eta guzti.

- **Kartzela:** azkeneko pisuan, ganbaran, teilatupeko gela-txo batzuetan zeuden ziegak, nahiz eta Atzeko kale aldera ematen zuen ate baten ostean kalabozo moduko bat ere bazen. Normalean egun edo gau gutxitarako presoak egoten ziren giltzapean (lapur txikiak, mozkorrek eta antzerakoak), baina goiko ziega haietako batean hilketa lazgarria gertatu zen 1937ko ekainean, gerra zibileko desmasietan.

- **Udaltzainen etxebizitzak:** aguazilek eta euren familia-koek luzaroan izan zuten kontzejuaren etxe honetan bizilekua. Besteren artean, Lorentzo Artza, Pedro Oleaga, Antonio Agirre edota Eujenio Aranguren euren sendiek.

- **Herriko telegrafoa:** Oñatira telegrafoa 1860ko hamarkadan iritsi zen, baina, dirudienez, azken karlistaldian kendu egin zuten; horregatik, gerra amaitzean, 1877an udaletxera ekarri zuten; postetxearekin batera urte batzuk Kafe Zaharreko eraikinean igaro ondoren, 1885ean kontzeju-etxera itzuli zen; hartarako gelak 2. pisuan jarri zituzten.

- **Herriko lehen telefono-zentraltxoa:** 1909an ipini zen kontzejuaren beheko aldean. Antonio aguazilaren alabak, Eva eta Ramonita Agirre, izan ziren urte askoan zentraltxo horren telefonista arduradunak. Geroago Kale Zaharreko botika gaineko pisura aldatu zen, 1960ko hamarkadan Lizauren kalera eraman zuten arte.



Oñatiko udaletxea gotortuta azkenengo karlistadian (1873).

- **Aurrezki Kutxa Probintziala:** Kutxa honek ere udaletxe-ko gela desberdinetan izan zuen bere egoitza XX. mendearen lehen erdialdean, 1950eko hamarkadan Zaratekora aldatu zen arte, orain *Aker* taberna dagoen lokalera.

- **Casino Oñatiense:** herriko jauntxoek elkarrekin zuten hau. Plaza aldeko etxe batean baino gehiagotan kokatu zen XIX. gizaldiaren bigarren erdian eta XX.aren hasieran. Era jarraian ez bazen ere, hainbat alditan izan zuen bere egoitza kontzeju-etxean; azkenekoz 1920ko hamarraldian.

- **Udal Liburutegia:** hasierako udaletxearen atzeko aldean jarri zen 1960ko hamarkadan, beheko kartzela eta beste zati batzuk aprobetxatuz, eta 1981era arte iraun zuen han. Bibliotekari zegozkion zerbitzuak ez ezik, beste ekarpen interesgarri batzuk ere gauzatu zituen, 1970etik aurrera, liburutegiaren gerizpean sortu zen lan-talde batek, Felix Ugarteren ekimenez: esate baterako, aldizkari bat, dokumentalak, argazki-artxiboa edota *Oñatiko Historia eta Arte Bilduma* liburukotea.

Plazaren inguruan izandako ospakizun eta gertakari batzuk

Ezinezkoa da lerro gutxitan azaltzea azken bi mendeetan Oñatiko kalearen erdialde honek ezagutu eta bizi izandakoak. Gure iritziz, garrantzitsuenak direnak laburbiltzeko ahalginak egingo ditugu:

- **Lehenengo karlistaldian (1833-1839),** artean plaza zaharra berritu aurretik, Karlos V.a errege-gurakoa behin baino gehiagotan egon zen bizitzen Lazarragatarren jauregian; etxe horretan atondutako moldiztegitik kaleratzen zen karlisten *Gaceta Oficial deiturikoa*, gerora *Boletín de Navarra y Provincias Vascongadas* izenburua hartu zuena; eta eraikin horretantxe sinatu zuten 1839ko abuztuaren hondarrean Marotok eta Esparterok gerra anker haren nolabaiteko amaiera, handik egun gutxira **Bergarako besarkada** bezala eszenifikatu zena.

- **Oñati Gipuzkoan 1845ean sartu zenean,** udaletxean zenbait bilera inportante burutu ziren; elkarrizketa eta joan-eto-

rri askoren ondoren, urte hartako urriaren 9an sinatu zen udaletxean Oñatiren gipuzkoaratzea. Eta 1847 urtean probintziako Batzar Nagusiak elkartu ziren gure herrian lehenengo aldiz.

- **Azkeneko karlistaldian ere (1870-1876)** plaza alde horrek protagonismo handia bereganatu zuen. Felipe Dugiols liberalak udaletxea gotortu egin zuen, harresiz eta babesgarriz hornituz. Bada garai hartako marrazki bitxi bat. Santa Kruz apaiz gerlariak jardun zuen Dugiolsen aurka. Liberalek herritik alde egin behar izan zuten eta orduko errege-gurako karlista ere, Karlos VII.a alegia, 1874ko abenduaren 16an heldu zen Oñatira.



Prozesioa plazan gora Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzarrean (1918).

- Lore Jokoak izeneko **Euskal Jaiak** ospatu ziren Oñatin 1902an eta, jakina, plaza nagusian hainbat ikuskizun, jolas eta festa antolatu zituzten.

- **Gernikako arbolaren kimua** landatu zen 1917ko otsailan plazaren eta pilotalekuaren artean. Osasuntsu eta adartsu jarraitzen du gizaldia bete berri duen haritzak.

- Datorren urteko irailean, berriz, izango dira ehun urte **Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzar garrantzitsua** Oñatin eratu zela. Bada 1918ko aste ospetsu hartan Oñatiko plazan ateratako argazki mordoxka.

- **II. Errepublikak 1931ko apirilean** aldarrikatu zenean, udaletxeko balkoitik hitz egin zieten oñatiarrei egoera berriaren alde zeudenak. Egun hartan errepublikazale sutsu batek balkoi nagusiaren erdian dagoen Oñatiko armarriri koroa kendu ei zion era bortitzean. Kurioso da: Oñatin monarkiko dezente izanda, ez da harrezkero herriko armarrira koroa itzularazteko asmorik agertu; ezta Francoren garaian ere.

- Gerra ostean ere izan zen enparantzan eta inguruetan gertaera, ospakizun eta kontzentrazioerik. Erlijioak eta elizak erruz eta erraz berreskuratu zuten aurretik galdua zuten esparru apurra. **Plaza behin eta berriro bete zen 1940 eta 1965 bitartean aldarrikapen erlijiosoekin:** misioak, prozesioak, eukaristia-kongresua, Andra Mariaren urtea (*Año mariano* zeritzan orduan), San Ignazioren mendeurrena, Arantzazurako mutilen (gauzez) eta nesken (egunez) igoerak, eta abar, eta abar.

- Beste maila batean, Oñatiren izena erbestean ezagutarazi zuena **1953ko martxoko ziklokros mundu-txapelketa** izan genuen. Frankismoari oso ondo etorri zitzaion, baina egia osorik esateko, ikaragarria izan zen Oñatik orduan ere auzolanerako erakutsi zuen borondatea.

- Geroztik ere zenbat gertakari aipagarri jazo den Foruen enparantzan: kontzentrazioak, manifestazio legalak eta debekatutakoak, era desberdinetako jaiak, kontzertuak, *komerixak*, antzerkiak eta beste asko. Hurrengo alean zehaztuko ditugu gehiago.


TABERNA • JAIETXEA
 Bidebarrieta 6
 Tel.: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Ipuina

ARAOZGO KANTARIXA

Auzo horretan bazan gizon bat betik kantuan ibiltten zana. Behin kobazulo batian eguela, betiko moduan zerbait kantaitten hasi zan, eta norbaittek kantuan erantzun otsala konturatu zanian:

—*Hau dot poza!*—zixuan-. Erregeregana noia.

Bidian zixoiala oixal-saltzaille bat topau eben. Harek, erregeregana zixoiala entzun ebenian:

—*Gaizki jantzitta zoiaz*—esan otsan-. Han irabaziko dozun erdixa neretako bada, neuk soiñeko barri ederrez jantziko zaut.

Araozgo kantarixa, erregeren aurrera aillegauta, ekixen guztia kantau otsan. Erregek orduan, gaizki iriztitta, saritzat berrehun makillakada emuteko agindu eben:

—*Berrehun? Orduan ehun oixaldunarendako!*—pentsau eben bere artian Araozgo kantarixa.

ETXANIZ ERLE, Xabier. *Geure ipuinak*. Moldauta.

Ez kikilddu, ez lotsatu

Urrinen betiko parejia

Urrinek badako lagun bat desagerketako zorixan daguena. Atzo goizera arte danon agotan entzuten zana gaur egunian, berriz, baztertuta edo bere senide ospetsu batzuk *-hurbil eta gertu-* ordezkatuta ikusten dogu, puntura arte gehixen ebali izan dana ixixa ahaztuta.

Hala ta be, ezta urrin fan bihar **'hurrian'** entzuteko, belarrixa ifiñi eta edozeiñeri entzun-go xatzue oraindiok, **hurreko berbia da, hurretik zaindu biharrekua, lagun hurra.**

Horra hor, bada, *Urrinen* betiko parejia berreskuraketako deiza.

Urrin= urruti; Hurrian= hurbil, gertu.

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|------------------|-------------------------------|
| 1. Ordeittu | A. Aipatu |
| 2. Mareau | B. Goraipatu, goratu, ohoretu |
| 3. Konfirmatu | C. Menderatu |
| 4. Mentau | D. Herdoildu |
| 5. Abonau | E. Zimaurtu, sastu |
| 6. Blastiu | F. Deitu |
| 7. Sistu | G. Berretsi |
| 8. Diar egin | H. Zorabiatu |
| 9. Mendian hartu | I. Ziria sartu, engainatu |
| 10. Sakatu | J. Jo, astindu |

EUSKERAZ

EGOGI

***Txandia dako zu maiazak 8, 9, 10.**

Makina elektronikuak askotan digituak baiño ez tittue emuten informaziño moduan. Hortaz, kontuz ibilli bihar dogu holakuak esaterunzkuan, gauza bat dalako makiñak erakusten doskuna eta beste bat hori zela esan bihar dan.

Adibidez, jo degigun anbulatorixoko makiñiak datu hau emuten xaela bulegarixari: **2017-05-08, 9:10.** Honek ezin dau esan txandia dako zu maiazak zortzi, bederatzi, hamar, beste honela baiño: **Txandia dako zu maiazaren zortzixan, goizeko bederatzixak eta hamarrian.**

Bardin-bardin beste edozein ordu agertu ezkeru. Adibidez:

2017-10-14, 11:15: urrixaren 14an, goizeko hamaikak eta laurdenetan.

2017-12-18, 13:45: abenduaren 18xan, eguerdiko ordu bixak laurden gutxiagotan.

Id. 2h, 3g, 4a, 5b, 6j, 7e, 8f, 9c, 10l.

ERANTZUNAK



San Migel parroikia barrutik orain dala 70 bat urte

Sanmigel eta Errosarixotako jaixak be heldu xaku, ba; aurten danak illaran, eten barik. Aitzakixa hau aprobetxauaz, parrokiaren antxiñatxoko fotografia hau dakartzuegu. Gerraosteko lehenengo hamarkada ingurukua izango da. Hurrenguan, 1955etik aurrera batez be, aldaketa sakon samarrak burutu ziran Oñatiko eliza nagusi horretan, Reyes Korkostegi alkatiaren garaixan. Hona argazkixan ikusi leikien batzuk:

- Elizan aurrekaldeko hiru aldare eta erretablo haundixak ez ezik, beste txiki asko egozen, han-hemenka sakabanatuta. Batzuk lekuz aldatu egin ziran eta beste batzuk kendu.

Azken honein artian interesgarrixenetako bat San Nikolasena zan: ezkerraldian agiri da, erraja platereskuaren onduan eta zutabetzar borobillari egokittuta; unibersidadian eta Oñatiko beste leku batzuetan jardundako Piarres Picart eskultore famauak erretablo honetan be parte hartu ei eben XVI. gizaldixaren erdi aldera; irudi batzuk Oñatin gordeten dira eta pare bat Donostiako elizbarrutiko museora eruan ziran eta gaur egun Santa Mariako elizan dagoz.

Eskumaldian, pulpittua eta Errosarixoko kapillako errajiaren artian San Pedroren aldaria ikusten da. Hau etzan kendu, lekuz aldatu baiño; haruntzatxuago jarri euen, klaustro aldera.

- Aldaria izan barik, parrokixan batera eta bestera ibili izan dan beste momumentu inportante bat Gebarako jaun baten hillobi dotoria da. Hemen Errosarixoko kapilla barruan somaitten da, eskumako hormiaren kontra. Handik urte batzuetara aldare nagusixaren azpira aldatu euen, kriptara, eta hantxe jarraiketan dau oñatiarren eta turista kanpotarren ikusgai.

- Beste kanbixo aittagarri bat jarlekuena izan zan. Hori 1960ko hamarkadan gertatu zan. Lehenago gizakumiak eta emakumiak aparte egoten ziran elizetan: gizonendako, parrokixan bost bat banku-illara egozen aurrekaldian, erdiko nabian, ezkerrian nahiz eskuman; korupeian be beste batzuk ziran zirkulu erdi bat egiñaz. Emakumiak, berriz, bakarkako aulki txikittan egoten ziran; batzuk partikularrak ziran, izen eta guzti. Elizan sartzerakuan, gizonak txapela erantzi bihar izaten euen, eta emakumiak mantillia jantzi.

- Baiña, biharbada, fotografixan agerketan dan aldakuntzarik nabarmenena eskumako arkitzar horrena da. Ezagun dau zein garaittakua dan: barroko txurrigereskua bete-betian. Organo barrixari eusteko jaso zan 1749xan. Migel Salezanek egin eben trazia, eta Juan Bautista Jauregi eta Gregorio Amiana hargiñak gauzatu zittuain tailla-lanak. Organua 1950ko hamarkadan koru barrenera eruan zanian, arkuia alargun samar geratu zalako, orain daguen lekura aldaketia erabagi zan, sakristixa aurrera. Etzan lan makala; Manuel Vasconcelos hargin portugaldar ospetsu eta zaratatsuaren ardurapeian hasi zan, baiña burutu aurretik herri-ttik alde egin eben eta Jabier Bikuña Albarritza hargin gaztiak emun bihar izan otsan errematia.

J. E.



grupo amuebladora mondragonesa



ZERKAOSTETA 3
TEL.: 943 71 10 11



ZIGARROLA 1
TEL.: 943 79 15 03



centro hogar MIERIES

ARRASATE



www.mieries.com